

417 zenbakia. 2000ko uztaillaren 7a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara



Kirol sariak 2000

Herriko kirolariak protagonista



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara. Tf. 943 76 47 49 / 73

Zatoz udako eskaintzak ezagutzera!

Ekainaren 24ko zozketa: 15.000 pezetako 15 erosketa-bono

225.000 pezeta

Zorionak denoi!



Sariak banatu dituzten komertzioak:

Manso optika
Itziar mertzeria
Gantxegi mertzeria
Arantza bitxitegia
Gaztelu burdindegia

Elkar fotokopiak
Iraegi aseguruak
Leturia harategia
Lazkano oinetakoak
Edel tapizdenda

Kanela dekorazioa
Jauja kirolak
Kortazar txokolategia
Antxoni jatetxea
Aldi-Irala janaridenda

Tomás Gezalaga

Era guztietako pintaketak

Fatxaden garbiketak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa
943 76 64 07
Poltsikokoa
616 277 999
ANTZUOLA
BERGARA

Ondo pasau Antzuolako jaixetan!



Profesionalak zuen zerbitzura



Eugenio Alles / Irakaslea

Kalitatea irakaskuntzan

Irakaskuntzaz asko hitz egiten ari da azken bolada honetan. Sarritan entzun dugu ikasleek gutxi ikasten dutela, eta, ondorioz, gero eta ezaguera gutxiago dagoela. Pentsakera honek ematen du eskola porrotarekin zerikusia daukela, baina zerbait gehiago da. Instrukzio eta formakuntza prozesu askok ez ei ditu beraien helburuak lortzen. Edo norbaitek esan duen moduan, eskola porrotaren gauzarik kezagarriena ez dira suspentsoa duten ikasleak, aprobatutakoak zelako gutxi ikasten duten konprobatzea baino.

Horrela bada, ikasteko eta irakasteko prozedurek zergatik egiten dute porrot? Errezena errudunak bilatzea da: irakasleak eta ikasleak. Lehenek ez dute irakatsi nahi, ez dute behar bezala lanik egiten. Bigarrenek ez dute ikasi nahi, ez dira ahalegintzen. Baina arazoa ez da hau, askoz konplexuagoa da.

Azken urte hauetan gizarteak aldaketa eta aurrerapen asko ezagutu ditu, era oso azkarrean gainera. Aldaketa hauen barruan irakaskuntzako zenbait prozedura eta metodologia desegokiak eta zaharrak bilakatu dira. Gizarteak eboluzionatzen du, eta askoren ustez

hezkuntza ez da eboluzionatzen erritmo berdinean, hau da, ikasi beharreko gauzak eboluzionatzen baldin badira, ikasteko eta irakasteko erabiltzen diren metodologiak, prozedurak eta ebaluatze erak eboluzionatu beharko lirarteke era berdinean.

Programazio eta metodologia askok beti bezala jarraitzen dute, sarritan gizaritean egon diren aldaketa teknologikoak, kulturalak eta soziologikoak kontuan hartu barik. Askotan kontutan hartu barik ikaslearen motibazioa ere. Irakaskuntzan motibaziorik eza arazorik handiena da. Galdera da: erabilitako metodologiak eta ebaluatze erak

“Programazio eta metodologia askok beti bezala jarraitzen dute, sarritan gizaritean egon diren aldaketa teknologikoak, kulturalak eta soziologikoak kontuan hartu barik”

gaur egungo gazteei motibatze gai al dira? Hau dela eta, ez dira ikasle eta irakasle arteko harremanak gero eta zailagoak izango? Honen gainean erreflexionatu beharko genuke.

Irakaskuntza Ertainen Erreforma berria indarrean jarri zenetik Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe batzuen eskuetatik bide berria zabaldu zen. Bide hau kalitate eta etengabeko hobekuntza filosofietan oinarrituta dago. Proiektu berri honen inguruan, hezkuntzaz kezkatutako irakasle taldean bildu egin dira, ilusioz beteta proiektu honetan lan asko eginez. Saiatzen da kalitateko erremintak eta metodologiak erabiltzen: helburuak ondo planifikatu, planifikatutako klaseko jarduerak ondo bete, betetako jarduerak ea eraginkorrak izan diren ebaluatu eta azkenean ondo egindakoa eta eraginkorra izan dena eguneratu, aktualizatu. Filosofia hau beste eskoletako irakasleekin konpartitzen ari da, kalitate hezkuntzan tailerrak antolatzen dira... hitz gutxitan, kalitate printzipioak irakaskuntza munduan hedatzen, gaur egungo gizaritean dauden desafioei aurre egin ahal izateko.<

barruan



“Piti” Unamuno

BKEko presidentea

“Zuzendaritza berriaren helburua elkartearen taldeak sendotzea izango da”

21.



Maria Urzelai

Antzerkigilea

“Nire lehenengo pisuzko lana da ‘Badum Mundua’; urduri nago aurkezpenerako”

27.



Inma Beristain

Girilekuko soroslea

“Gaizki erantzuten dosten horrei mutikuoï egingo notseke ‘aguadilla’ bat”

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Merkataritza aholkulariak.
Eusko Jaurilaritza. 32 urte baino gutxiago eta unibertsitateko goi mailako titulua dutenentzat. Aholkulari teknikoaren heziketarako bekak.
Epea: uztailak 22.

Turismoari buruzko ikerketa.
Eusko Jaurilaritza. Azken bost urteetan Turismo edo lizentziatura ikasketak bukatu dituztenentzat. Ikerketa sustatzeko beken programa.
Epea: uztailak 22.

Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzeagatikotako diru laguntzak:
Bergarako Udala. Epea: irailak 15.
Barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak. Bergarako Udala.
Epea: irailak 15.

IKASKETAK

Hainbat karreraren inguruko informazioa. Ikasketen programazioa, unibertsitatean sartzeko puntuazioa, bekak, masterrak eta abar.

SARIAK

Jesús M. de Leizaola saria. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP). Autonomiari buruzko lanak, euskaraz zein gaztelaniaz idatziak eta taldeka nahiz bakarka prestatuak.
Epea: abuztuak 29.
Gaztemaniak! 4. CDa. Gaztemaniak!. Egun kontratu diskografikorik ez duten Gipuzkoako talde zein musikagileentzat. CD berria azaltzeko maketa lehiaketa. Epea: irailak 15.

LAN ESKAINTZAK

Hainbat lanpostu. Gasteizko Udala (Araba); Centro de Estudios Ambientales. Laguntzaile teknikoak, informatikoa, erdi eta goi mailako teknikariak, arkitektoa...
Epea: uztailak 14.

BESTELAKOAK

Alojamendu, Udarako Ekintza eta Turismo Informazioa.
Euskal Herrikoa, beste komunitateetako eta atzerrikoa.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatzoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Ordutegia uztailaren 6tik irailaren 2ra:
Osteguna: 09:00-23:00 eta 16:00-20:00
Ostirala: 09:00-13:00
Abuztuko 2., 3. eta 4. astean, itxita

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketaren eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Sagastarrua

Neguan agertzen den txoria, birigarroa baino handixeagoa.

-Bi zozo ta iru sagastarro arrapahtut.



JOSU OKINA

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate

San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 29	21	12,5	-	26	15	-
Eguakitza 30	22	13	-	30	13	-
Zapatua 1	20	16	-	25	17	-
Domeka 2	23	13	-	29	17	-
Astelehena 3	15	12	8,5	28	12	8,5
Martitena 4	18	10	-	22	12	-
Eguaztena 5	18,5	12,5	-	26	13	-

Farmaziak

Eguakitza 7:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 9:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 10:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitena 11:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 12:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 9: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Guruzte Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Jurgi Zuazo
7an 6 urte.
Urte askotarako!
Aratz eta gurasoak.



Alberto Bolaños
11n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Emaztea eta alabak.



Emeterio Uriarte
10ean 92 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maider
San Torkuato
12an 4. Zorionak
eta muxu bat! Ama,
aita eta Amaia.



Miren Urtaza
8an 7 urte.
Urte askotarako!
Amama eta izebak.



Maitane Garate
13an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Irati eta
Oihan.



Itsaso Mujika
9an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Gutierrez
9an urtebete.
Urte askotarako!
Lehengusina.



Saioa Zumelaga
9an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gurutz Axpe
13an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Eneritz
eta Oihane.



Ander Najera
13an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Olatz Alzelai
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Altzarteko peña.

URTEURRENA

Enrique
Lete Aldazabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 9,
eguerdiko 13:00ean, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ZUZENKETA: joan zen astean, Berrigararen erruz, Enrique Lete Aldazabalen lehen urteurreneko meza uztailaren 2an izango zela iragarri genuen, baina domeka honetan izango da, ekainaren 9an. Sendikoei eta lagunei barkamena eskatzen dizuegu.



Asier Lakuntza
8an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Arregi
11n 3 urte.
Urte askotarako!
Barrenkalekoak eta Jon.



Jon Ander Roman
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Miren Errasti
9an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gonzalo Ena
13an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Unai Lizarralde
10ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean,
uztailaren 14tik 20ra
bitartekoen zorion agurrak
agitaratuko ditugu.*

jaiotakoak

- BERGARA**
Olatz Ugarte Larrañaga
Ekainak 24
Malen Abajo Rodriguez
Ekainak 28
Leire Merino Calvo
Ekainak 25
ANTZUOLA
Patxi Abasolo Iturbe
Ekainak 21

hildakoak

- BERGARA**
Felipe Zeziaga Zubiate
Ekainak 22, 71 urte
Pedro Idarreta Jauregi
Ekainak 28, 77 urte
Joakin Ostolaza Goñi
Uztailak 4, 91 urte
Angel Aranguren Pildain
Uztailak 4, 88 urte

mezak

- | | |
|---|--|
| Santa Marina
Domekak: 13:00.
Zapatuak: 20:00.
Lanegunak: 19:30. | Angiozar
Domekak: 11:00. |
| San Pedro
Domekak: 09:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Monja Zaharrak
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 07:30. |
| Osintxu
Domekak: 11:30. | Mizpirualde
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45. |
| Elosu
Domekak: 13:00. | Antzuola
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 20:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elgeta
Domekak: 12:00. |
| San Prudentzio
Domekak: 10:30. | San Lorentzo
Zapatuak: 19:00. |
| Labegarieta
Zapatuak: 19:00. | Angiozar
Lanegunak: 09:00. |

ESKER ONA

Justino
Ena Boraita

Donostian hil zen
2000ko ekainaren 28an,
74 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko Nieves Laskurain alarguna eta sendikoen izenean.

URTEURRENA

Candido
Urriategi Zabaleta

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 9,
eguerdiko 13:00ean, Santa Marinaran.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Juana
Gabilondo Gantxegi

Donostian hil zen
2000ko ekainaren 28an,
86 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Martin
Lete Urdangarin

Bergaran hil zen
2000ko ekainaren 25ean,
54 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.

ANTZERKIA

► Nazioarteko kale antzerki topaketak

Zarautzen: eguenean, hilak 13, Hortzuga taldearen **"Badum"**, 18:00etan Foruen plazan; 19:00etan, **"Yo soy yo mismo"** (Matxin taldea) Musika plazan; 20:00etan, **"Capricho"** (Senza tempo) Malekoian, eta gaueko 22:30ean, **"Le feu"** (Le salamandre) Munoan. Eguakitzean, hilak 14, 18:30ean **"Petrikiloak"** (Hankagorri), 18:30ean Foruen plazan; orubete beranduago, **Txan Magoa** Musika plazan; 22:30ean **"Bikiak"** (Deabru beltzak) 22:30ean Malekoian, eta gauerdian, **"Lazurd"** (Senza tempo) Munoan.

MUSIKA

► **Elorrio klasikoa.** Gaur, eguakitzan, **Spanish Brass** taldearen "Lur metalls", 22:30ean Aldatzekua jauregian. Bihar, zapatua, **Trio Assai**, 22:30ean Casajara jauregian.

► **Tonkey Blues Band** taldea eguenean, hilak 13, 22:00etan Espoloian.

ERAKUSKETAK

► **Josemari Aleman Amundarainen** "Jazzeko hogeita hamar nagusiak" pintura erakusketa Kultur Etxean.

MUSIKA

Bi luma

- Martitzenean, ekainak 11, 22:00etan
- Pol-Pol tabernan

Kultur Errotaren programazioaren barruan, Bi luma taldearen emanaldia izango da martitzen gauean Pol-Polen. Andoni Arana eta Oier Sarasua 23 urteko atxabaltar gazteek osatzen dute Bi luma. Hiruzpalau urtez ari dira elkarrekin jotzen, baina jendeurreko emanaldiak eskaintzen orain urte eta erdi hasi ziren. Oierrek esan digunez, "gitarra akustikoez lagunduta, musika lasaia egiten dugu. Oso zaila egiten zait gure musika sailkatzea, ez delako ez folk, ez country... Musika melodikoa egiten dugu, eta formato txikiko emanaldiak atsegin ditugu, batik bat, jendearengandik hurbil egoteko, gure musika horretarako aproposa da eta. Gure helburua musikarekin gozatzea da, eta guretako ihesbide bat da, ez dugu sekula pentsatu musikatik bizitzea". Egiten duten musika

islatu nahirik, Bi luma izena jarri zioten bikoteari. Esan bezala, gitarra eta ahotsa dira euren musikaren ardatz nagusiak. Hitzak Oierren anaiarenak, Jon Sarasua bertsolariarenak, dira.

Martitzeneko emanaldian bidaia bat egitea proposatuko diete Pol-Polera joaten diren entzuleei. Oierrek dioskunez, "gaueko izar-multzoekin joko moduko bat egiten dugu, eta emanaldia gau batean izartegian zehar egindako bidaia baten antzekoa litzateke". Besteak beste, "Izar gorri", "Arranoa", "Egungentia", "Iletargia", "Nor zara?" edo "Mendi lepoan" izenburuko abestiak entzuteko aukera izango dugu. Musikarekin batera bikoteak aukeraturako diapositibak erakutsiko dira.



Andoni Arana eta Oier Sarasua, Bi luma bikoteko kideak.

► **Ramon Aranzabalen** margoak Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Arrasateko Komiki Ez Sexisten III. lehiaketa.** Lanak 17x24 cm.ko edo

proportzio bereko formato bertikalean aurkeztuko dira, eta bitik lau orri bitarte hartuko dituzte. Testuak euskaraz zein gaztelaz aurkez daitezke. Irabazleak 90.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea uztailaren 21ean bukatuko da.

Argibide gehiago 943 79 09 00 zenbakian.

► **Baleike VI. komiki lehiaketa.** Lanak aurkezteko muga-eguna: uztailaren 28a. lehen saria 50.000 pezeta, bigarrena 30.000 pezetako izango da. Argibideak: 943 86 10 56.

Agirrebeña

JATEKETA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

DEIAK

► **Ikasle Abertzaleak** taldeak antolatuta, mendi martxa uztailaren 20tik 23ra. Uztailaren 20an, Sara-Zugarramurdi ibilbidea; 21ean, Zugarramurdi-Amaiur; hilaren 22an, Amaiur-Elizondo, eta 23an, Elizondotik etxera. Izen-ematea (2.500 pezeta) Euskadiko Kutzako 0920040737 kontu korrontean uztailaren 17a baino lehenago. Autobus txartelak (1.000 peze-ta) Arrano tabernan.

► **Gazte lokalaren** aldeko mugimenduak, eguakitzero, 19:15ean, Kartzela zaharrearren egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

► **Arantzazuko** Santutegira peregrinazioa eta **Loiolako** Santutegira bisita uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik goizeko 9:30ean egingo da, autobus geltokitik. Ibilbidearen zati bat oinez egin ahal izango da. **Penitentzia komunitarioa** izango da 11etan; 12etan, **meza nagusia** basilikan; 14:00etan, **errromesen bazkaria** Hospederian; 16:15ean, bideoa; 17:00etan, **Ama Birjinari agurra**, eta ondoren, **Loiolara irteera**. Arratsaldeko 8etan irtengo dira autobusak Loiolatik Bergarara. Autobus txartelak (850 pezeta) eta bazkarirako txartelak (1.950) San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon eta Barrenkaleko Zatoian.

OHARRAK

► **Monja Zaharretako mezak.** Uztailetik aurrera eta irailaren erdialdera arte aste-barruko mezak goizeko 7:30ean izango dira, eta domeka eta jaiegunetan, 18:00etan.

JAIK

► **San Kristobal auzoko jaiak** gaur, eguakitza, **pinu jartzea** 22:00etan eta jarraian auzokoentzako **txokolatada**. Bihar, zapatua, **Muxutruk** taldeak alaitutako dantzaldia 23:00etan. Domekan, 12:00etan, **meza nagusia** eta ondoren, **kotxeen bedeinkapena** eta auzoko jubilatuetako **luntxa**. Jarraian, **Haritz eta Enaitz** trikitalariek in erromeria. Astelehenean, San Kristobal egunean, 12:00etan meza nagusia; jarraian, **kotxeen bedeinkapena**, **Haritz eta Enaitz** trikitalariak, eta gaueko 11etan, **Imuntzo eta Belokirekin** erromeria. Hurrengo zapatuan, hilak 15, San Kristobal go **V. Plater Tiraketa** izango da 16:00etan.

KINTADAK

► **1971n** jaiotako eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria uztailaren 15ean Txuringon. Izen-ematea (2.500 pezeta) uztailaren 6ra arte zabalik Kutzako 21010070820123094443 kontu korrante zenbakian.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Ojos que te acechan

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna:

19:30, 22:15.

ARRASATE. Alai zinema

Golpe a traicion

Eguakitza: 22:00.

Stuart little

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Monterron

Todo sobre mi madre

Eguena: 22:30.

EIBAR. Unzaga

Tango para tres

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Jugando a tope

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Stigmata

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Ojos que te acechan

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

AZKOITIA. Baztartxo

Soñe con Africa

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.



OJOS QUE TE ACECHAN

Zuzendaria: Stephan Elliot.

Aktoreak: Ashley Judd, Ewan McGregor, Jason Priestley. =13 urte

Britania Handiko zerbitzu sekretuan lanean ari den agente batek (Ewan McGregor), Estatu Batuetako senatore baten seme-ari txantaia egiteagatik susmagarria den emakume bat (Ashley Judd) gertutik zaindu beharko du. Berehala bien artean erlazio berezia sortuko da, Elliot zuzendariaren filmean espioitza eta amor-dioa uztartuz...

TANGO PARA TRES

Zuzendaria: Damon Santostefano.

Aktoreak: Matthew Perry, Neve Campbell. =13 urte

Oscar Nova arkitekto ezagunari (Matthew Perry) bi enkargu agindu dizkio Charles Newman dirudunak: alde batetik, kultura etxe bat diseinatzea eta, bestetik, *Amy Post* (Neve Campbell) haren neska-laguna zaintzea. Arkitektoa berehala maiteminduko da zaindu behar duen neska-ekin...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

- 📖 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 📖 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 📖 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Hiru hilabete barru bukatuko dira autopistako "A" faseko lanak

Roman Sudupe eta Antton Jaime eguakitzean izan ziren lanak ikusten


Roman Sudupe Diputatu nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepide-etako Foru Diputatu Bergaran izan ziren joan zen eguakitzean Gasteiz-Eibar autobideko lanak ikusten. Lezarriko tuneletako bat zulatzen ere eguakitzean bukatu zen. Lanak hiru hilabete-tan amaitzea aurreikusten da.

Bergarako Iparraldean, Amillagan, hasi eta Eibar arte luzatuko den autobide zatiari dagozkio lan hauek, "A" fasea deritzonari, hain zuzen. Hor fasean, autobidearen enborrak 4'8 kilometro ditu; eta beste kilometro bat Bergarako lotuneari dagokiona.

"A" fasean lau tunel erakitzen ari dira: Lezarriko tunelak Bergaran, eta Gallastegiko tunelak Soraluzen. Lezarriko bi tuneletako bakoitzak 1.220 metro ditu, eta Gallastegiko bakoitzak 2.370 metro.

Tunelak "A" fase horretako lan garrantzitsuena dira: obra guztiaren aurrekontuaren %80 tunelak egiten gatatuko da. Eguakitz goizean amaitu zuten lehenengo tunela zulatzen, Lezarriko bat hain zuzen. Azken zulaketa hau ikustera, Roman Sudupe Diputatu nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepide-etako Foru Diputatua hurbildu ziren, Soraluze eta Bergarako alkateekin batera.

Hilabetero, 110 metro aurreratzen dute lanek. Hori



Lezarriko eskuinaldeko tunela zulatzen eguakitzean bertan amaitu zuten.



Antton Jaime eta Roman Sudupe alkatearekin bisitako une batean.

horrela izanik, hiru hilabete-tan "A" faseko lanak amaituta egongo dira.

Antton Jaime Diputatu nagusiak esan zuenez, obraren programazioaren batean bi hilabeteko atzerapena egon da, eta lortutako errendimenduari jarraituz, obrak bukatzeko atzerapena piska bat gutxituko den arren, tunelen ondoren datorren zatiko obrak berri-

ro antolatuko dira, atzerapen txiki horri aurre egiteko eta obrak aurreikusitako epean bukatzeko".

Lanak iaz hasi ziren, maiatzaren 15ean, 9.850 milioi inguruko aurrekontua dute, eta 30 hilabeteko epean bukatu beharko dira obrak esleitzeko baldintzen arabera.

Obraren kanpoko aldean, hau da, tunelen kanpoan, Bergarako lotuneko bi-

dearretako lubeta eta lurrrerauzketak egiten ari dira: batetik, Lezarriko bi tunelen hegoaldean dagoen autobidearen enborraren zatian; bestetik, Lezarri eta Gallastegiko tunelen arteko zatian. Izan ere, tunelen artean 400 metroko tartea dago Gasteiz aldera zuzenduko den autobide zatiaren kasuan. Lanak esleitzeko baldintza plegua oraindik egin gabe dagoela aurreratu zuen Antton Jaime diputatuak.

UDALAREN ALEGAZIOA

Hala eta guztiz ere, Angiozar bailara aldera zuzenduko den San Martzialgo tunela eta honi lotuta biaduktoa eraikitzea aurreikusten da Eibar-Gasteiz proiektuan.

Tunelaren irteera eta honi lotuko zaion biaduktoa, Debagoieneko Mankomunitateak San Kristobalen duen Hondakinen Gordailu Alternatiboaren gainetik igaroko da.

Kamioi ugari joaten da bertara hondakinak eramatera, eta San Martzialgo tunela egitean, abiadura moteleko ibilgailu horiek tunela zeharkatu eta berehala izango dute Hondakinen Gordailurako irteera.

Bergarako Udalaren ustez, irteera tunelaren amaiera ondoan egotea arriskutsua da, autobidean autoak abiadura handiz ibiltzen baitira. Hori horrela izanik, asteleheneko plenoan Diputaziora alegazio bat bidaltzea onartu zen gordailua tokiz aldatzea eskatuz.

Euskal presoen aldeko martxa nazionala datorren eguaztenean helduko da Bergarara

Euskal preso politiko-erakundearen eskubideen aldeko martxa nazionala Bergarara iritsiko da datorren eguaztenean, hilak 12, eguerdiko 13:00ean, Euskal Herriko hainbat herritatik igaro ondoren. Herriko hainbat talde, sindikatu eta taberna atxiki zaizkio martxari: sindikatuen artean, ELA, LAB, EHNE, ESK eta STEE-EILAS; tabernen kasuan laurogeik egin dute bat "Euskal presoak Euskal Herrira" martxa nazionalarekin, eta talde eta elkarten artean honakoek: Kapirixok, Bergara Racing-ek, AEK-k, Gazte Lokalaren Aldeko mugimenduak, Xamatx dantza taldeak, Kobok dultzaineroek, Taun-Taunek, Musika Eskolak, Bedelkarrek, Kukumak, Bergarako Kirol Elkarteak, Zutik-ek, EHk, San Martin de Agirre eta Miguel Altuna ikastetxe-ek eta Beart-ek. Hala ere, oraindik beste talde batzuen atxikimendua baieztatzen dago.

IBILBIDEA HERRIAN ZEHAR

"Egin itzazu 100 metro euskal presoaren eskubideen alde" eta "Egin itzazu 100 metro zure hitzaren defentsan", martxaren leloei jarraituz, herri osoan zeharko ibilbidea zehaztu da. Leloek dioten bezala, ibilbidea ehun metroka banatu da. Ehun



Martxaren lekuko berria Agoitzen estreinatu zen. Lehenengoa, poliziaren eskuetan dago.

JAGOBA MANTEROLA

metroko zati bakoitzean talde batek eramango du martxaren lekukoa. Martxa, 13:00ean iritsiko da herrira, eta Antzuolatik etorriko denez, harrera San Antonioko bidegurutzean egingo zaio. Behin herrira iritsita, 18 tokitan aldatuko da eskuz lekukoa. Esku aldaketa non izango den laukian dator adierazita.

Talde bakoitzak lekukoa non hartuko duen zehazteke dagoen arren, azkeneko ehun metroetan, hau da, San Martin plazan, Mariano Etxanizek, Jose Mari Etxaniz presoaren aitak erango du.

Bazkalostean, arratsaldeko 16:00ak aldera egingo dio bideari martxak, eta Eskoriatza aldera abiatuko da. Horrez gain, bailaran egingo diren ekitaldi guztiei amaiera emateko, kontzentrazioa egingo da Oñatin arratsaldeko 19:30ean. 18:30ean, kotxe karabana bat aterako da harantz Bergaratik.

Martxa bereko ekitaldien barruan, Urbiara irteera egingo da datorren domekan, hilak 9. Bilgunea Arantzazuko Sindika taberna da. Ordua, goizeko 10:00ak.

Ibilbidea

1. San Antonioko bidegurutzean
2. Espoioian
3. Mariaren Lagundia ikastetxe pareko semaforoan
4. San Pedro plazan
5. Elkar fotokopia denda parean
6. Pertxa elkartearen parean
7. Zubietako zubian
8. Mugertza gainean
9. Poligonoko zubian
10. Igerilekuen parean
11. Hilerrri parean
12. Estella farmaziaren parean
13. Usondo parkearen hasieran
14. San Martzialeko bide hasieran
15. Miguel Altuna ikastetxe parean
16. Irizar kaleko errotondan
17. Gaspar jatetxearen parean
18. San Martin plazan

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10



Etxebizitza berriak
Antzuola erdian

- 90 m²ko etxebizitzak, 3 logelakoak
- Leku ezin hobean
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- **20 milioitan!**

Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

CAMACHO

Drogeria
Usandegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Laurehun haur inguru jolasean uztaileko udaleku irekietan

Astlehenean jarri ziren martxan udaleku irekiak. Uztailaren 28ra bitartean, 400 haur inguruk hartuko dute parte udaleku irekietan, goizeko 10:00etatik 13:00etara. 3 urtetik hasi eta 14 urte arteko haurrei zuzenduta daude, eta aurtun 38 talde sortu dira. Talde bakoitzak 10 edo 11 lagun ditu eta adinaren arabera daude banatuta. Begiraleei dagokienez, talde bakoitzak bat izango du, eta horrez gain, koordinazio lanetan beste lau pertsona arituko dira.

Neska-mutiko guztiak hiru ikastetxetan biltzen dira: Poligonoko Ikastolan, Ipintza institutuan eta San Martin ikastetxean. Hala eta guztiz ere, bilguneak horiek diren arren, kanpo ekintzak dira nagusi uztaileko udale-



Ikastetxe barruan, eguraldi euritsua denean bakarrik egoten dira umeak.

ku irekietan, eguraldiak lagunduz gero.

Kanpo ekintza hauek antolatzeko orduan, begirale zein koordinatzaileek, herriak eskaintzen dituen errekurtsoak erabiltzen dituzte. Horrela, igerilekura, Gorlara, Osintxura, San

Martzialera eta beste hainbat tokitara egingo dituzte irteerak neska-mutikoez uztailean zehar. Bestalde, nagusitxoagoek rokodromora, Bearteko egoitzara edota Arrasateko igerilekuetara joateko aukera ere izango dute.

Bergarako UNEDak egoitza berrizteko lanetan dihardu

UNED egoitza berrizteko lanetan ari da. Beheko solairuko idazkaritza berriztu egingo da, eta berrizte horrez gain, lehenengo solairuan dauden tutoritzarako gelak ere berrantolatu egingo dira. Liburutegiari dagokionez, tokiz aldatuko da, eta berria, oraingoa baino handiagoa izango da, 177 metro karratu izango ditu.

Lan hauen guztien aurrekontua berrogeita hamar milioi pezetakoa da: hauetatik berrogei milioi Patronatoak (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalak eta Kutxak osatzen dute) ordainduko ditu, eta beste hamar milioiez Madrilgo egoitza nagusia egingo da kargu.

San Kristobalen kotxe bedeinkapena asteburuan

San Kristobalen jaiak ospatuko dira asteburuan. Gaur, eguakitzan, 22:00etan pinua jarriko da, eta jarraian, auzokoendako txokolatada egongo da. Zapatuan, 23:00etan, Muxutruk taldeak alaituta, dantzaldia izango da. Domekan, 12:00etan, meza, eta ondoren ohiko kotxe bedeinkapena eta auzokoendako luntxa. Astlehenean, San Kristobal eguna, kotxe bedeinkapena egingo da, eta gaueko 23:00etan, Imuntzo eta Belokirekin erromeria.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



BANKINTER

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

%3,25* etik aurrera

*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitartearaino

Berrigara

417 zenbakia.
2000ko uztailaren 7a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi.
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpideta: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Iban Arantzabal.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendiakute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elepuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Benito Cantero

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldiakariari adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

TXANPON BEREKO BI AURPEGI

Duela bi aste Kapirixo elkarteko kide batzuk, Angiozarreko batzuekin batera, Udala-Intxorta eremu megalitikoak bisitatzera joan ginen. Bisitaren helburua tumuluen kokapena zehaztea eta desagertutak eman-dakoak aurkitzea zen. Hortan genbiltzala, karreteratik oso gertu dauden Tranpaluarri eta Imixarritza (orain bost bat urte aurkitua) bisitatzerakoan izan genituen lehengo sorpresatxoak. Imixarritxak alde bat ia desagertua zuela bagenekien, baina, Tranpaluarriko tumulu dotorea hain egoera kasarrean aurkitzea ez genuen espero. Duela 5-6 urte inguru egoera onean zegoena, benetan egoera tamalgarrin dago: tumuluaren gainean izango ditu orain ez asko aldatutako ehundik gora abeto eta huez gainera, beste mota askotako landareak. Eta alhoan, hau da paradoxa, tumulua seinalizatzen duen plakatxoa!

Kanpantzarretik gorako bidean daudenak (Gorontzarri zelaikoa salbuespena) ere egoera tamalgarrin daude, Lasartegainekoa erabat txikituta aurkitzen da (1982ko Gipuzkoako Karta Arkeologikoan egoera ona zuela zioen); eta Irutontorreta bidean daudenak? Hasierean gutxienez hiru tumulu ziren. Egin ezazue bisita bat eta begiratu ea non aurkitzen duzen tumuluren batekin pareka daitekeen zeozer! Irutontorreta III desagertutak jo daiteke, bertan orain gutxi pinuak sartu zituzten. Eta hau egin aurretik makina suntsitzailea pasatzen gainetik. Lehen ere egoera txarrean zegoena, agur, joan zaigu.

A zer martxa daramagun! Eta honen erantzuleak?

Bisitaldi berean, Angiozarreko San Migel eliza ikusteko parada ere izan genuen. Benetan poztekoa hemen egin den lana. Bertan dihardutenei eskerrik beroenak.

Kapirixo elkarte

EGOERA BEREAN

Beste bigarren eskutitz hau idazten dot, joan zen asteko gutunarekin salatu nuen egoerak jarraitzen duela adierazi eta euskal inguruan mugitzen den jende batengandik oraindik presio jasanezina biziz nagoela adierazteko.

J.X.A.
N.A.N.: 15.384.331

tira biraka oihan vega



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Tourrian, porraren baten parte hartzen dozu? Zeiñek uste dozu irabaziko dabela?



Iñigo Orgaz

Aurten tabernan egin dogu porria. Ziklismua asko gustatzen jat. Olanok irabaztia nahi neuke, zalla dauka, baiña dana da posibilia.



Jose R. Madinabeitia

Ez, ez daukat horrelakotan parte hartzeko ohiturarik. Neuk nahixago dot Olanok irabaztia, baiña esaten dabe Pantanik irabaziko dabela.



Edurne Hurtado

Lasterketaren bat parian tokatzen bajat eta telebisiñuan besterik ez badago, ikusi izan dot, baiña ez dot Tourra segitzen.



Marina Reinoso

Ez, egixa esan ez da gehixegi interesatzen jaten kirol bat, beraz, ez dot bape jarraitzen.



Alex Gardoki

Urtero ez dot egitten, baiña aurten Garako porria egin dot. Nere faboritua Alex Zulle da, ia irabazten daben... aurten edo sekula bez.



Joxe Mari Azkarate

Porrarik ez dot egitten, baiña neretako txirindularitza munduko kirolik onena da. Armstrong-ek irabaziko dau nere ustez.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

KOTXE ILADA LUZEAK SAN ANTONION

Tere Madinabeitiaren kexa jaso dugu aste honetan. Tere Madinabeitia legazpiarra dugu eta egunero Bergarara etortzen da lanera. Berak esan digunez, askotan kotxe ilada luzeak sortzen dira, goizez, Antzuolatik Bergararako sarrean, San Antonion. Zenbaitetan lehengo Renaulteko kontzesionarioitik San Antoniko semafororaino egoten dira kotxe iladak, horrek gidariei ekarrarazten dien atzerapenarekin. Antza denez, udaltzainak trafikoa zuzentzen egoten direnean, arazoa nahiko ondo bideratzen da. Udaltzainik ez dagoenean, berriz, semafororen erruz, kotxe iladak behala sortzen dira eta beraz, dagokionari, arazo honen aurrean neurriak hartzea eskatu nahi dio Terek.

EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



GIZAINTZA

- Gaixo eta hirugarren adinekoen zaintze lanak
- Etxez-etxeko laguntzan espezializatuak
- Ospitaleko egonaldi eta gauak
- Oporretan ere zaintzen ditugu etxekoak
- Klinika eta Geriatria laguntzaileak ere baditugu
- Goxotasuna eta Zerbitzua

Etxaluze, 54
20560 OÑATI

Tel. Mugikorra: 657 71 01 50



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

adituen esanetan

Genoma proiektua

Gure genen multzoari genoma izena ematen zaio, eta orain ezagutzera eman den genoma proiektuarekin kode genetiko gehiena (%97) deszifratzea lortu da. Hau da, zelulen barnean, DNA (desoxirribonukleiko azidoa), kode baten bidez, lau hizkirekin adierazten da: A (adenina), T (timina), C (zitosina) eta G (guanina). DNA helize bikoitza itxurako e-
struktura da, eta bata besteari lotuta dauden bi kate osagarri dira. Hizkiak bikoteka lotuta doaz: adenina timinarekin eta zitosina guaninarekin. Kode genetiko deszifratuta, adenina, timina, zitosina eta guaninaren proportzioak ezagutu dira, eta sekuentziatu ere egin dituzte, zein ordenatan dauden jakiteko. Ordena garrantzitsua da, honen arabera proteina desberdinak lortzen direlako. Proteinak gorputz barruko langileak dira, eta betebeharrak biologikoa guztiren ardura dute. DNA guztia hemendik hiru bat urtera deszifratuko dela espero dute.



ROSA AGIRREBEÑA

Biologoa

“Bakoitzak bere kode genetiko izango du, eta sintomak agertu baino lehen, zein gaixotasunetarako joerak ditugun jakin ahal izango dugu”

Beraz, genen funtzioa jakiteko lehen pausua eman da, orain arte genekien bakarra bere ezaugarri kimikoak eta fisikoak baitziren. Orain nortasun agiria daukagun bezala, etorkizunean bakoitzak bere kode genetiko izango du. Horri esker, zein gaixotasunetarako joerak ditugun jakin ahal izango dugu, sintomak agertu baino lehen. Honek bere arriskuak ere baditu, ordea, aseguru etxeek informazio hori euren intereserako erabili dezakete eta. Etika aldetik ikusita, lege berriak

sortzea eskatuko du beharbada, gure intimitatea babeste aldera. Bestalde, gaizkileak eta identifikatzeko euren ile bat topatzea nahikoa izango da.

Gaixotasun heredagarrien kasuan, gurasoek beraien seme-alabek gaixotasun horiek edukitzeko arriskua duten ala ez ere jakin ahal izango dute. Era berean, besteak beste, minbizia, diabetesa, IHESA, Alzheimerra edo giharretako distrofia bezalako gaixotasunak sendatzeko aukera egongo da.

bergarako errotrak



BOLINTXO edo ARIZABAETA BOLU

Pedro Txurruka Kareaga, 54 urtekoa, nekazaria (ez zekeen irakurtzen eta idazten) Arizabaletako errotran bizi zen 1890ean, orduko zentsu ofizialak dakarrenez.

1931n Victoriano Arizabaletaren izenean eman zitzaion alta Bolintxoko errotrari herri-errota gisa eta 1944tik 1956ra Eusebio Arizabaleta Kortabarriaren izenean egon zen. 1956a izan zen herri-errota moduan funtzionatu zuen azkeneko urtea.

Bertako azkeneko errotraria Eusebio Arizabaleta izan zen, 71 urte zituela 1973an hil zena.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatara dago.


Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak.

Harriak pikatzea ere Eusebiok berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka ematen zitzaion.

1973an utzi zion errota honek ehotze-lanari eta gero okindegira bihurtu zen.

KOKAPENA: San Juango ermitaren aurrean.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatara dago. Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak.



Zientzilari bat gaixo baten lagin genetikoaren plantxa bat aztertzen.

Antxon Agirre Sorondo

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Aprobetxa ezazu aukera hau!



**Alcatel
One Touch
Easy DB
9.900 pta.**

Irimo

Zurradero 4
BERGARA
943 76 59 52

Banatzaile Ofiziala

7.000
pezetaraino deietan
Kontultatu baldintzak
Uztailaren 31ra arteko balioa du eskaintzak

Telefonica
Movistar

Azur eta Kaos Etiliko

Azur bergararren argazkiak **Kaos Etiliko** taldearen "**Porsupuestón!**" azken diskoko azalean eta kontrazalean ikus ditzakegu. Azur-en "**Argazki etilikoak**" izenburuko erakusketako lanak dira biak eta Kaos Etiliko taldekoei, aipatutako erakusketa Jam-en ikusi ondoren, egoikiak iruditu zitzaizkien euren azken lanaren portada apaintzeko. Diskoko azalean **Marcelino Martinez** zena agertzen da. Astebukaera honetatik aurrera Azur-en "**Euskal txokoak**" erakusketa ikusgai izango da Pol-Polen.



Ardo dastatzen

Jardun elkarteak antolatuta, 10 lagun izan dira azken bi asteetan Kartzela Zaharrean egindako ardo dastaketa ikastaroan. **Mikel Garaizabal** sumillerra eta enologo elorriotarraren eskutik, ardoa egiteko prozesua, ardoen ezaugarriak, dastatzeko teknikak eta beste hainbat "sekreto" ikasteko aukera izan dute. Eguenean eman zioten amaiera 10 orduko ikastaroari eta, udazken aldera, iaz horrelako beste ikastaro batean parte hartu zuten lagunekin ardoaren ezagutzan sakontzeko ikastaroa antolatuko du Jardunek.

Ipintza institutuko DBHko ikasleek kurtsu bukaerako jaia ospatu zuten joan zen ekainaren 23an. Goiz osoan zehar, 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleek, sokatira, txinga eta kaskara-joku txapelketak izan zituzten. Irakasleek ere sasoi onean direla erakutsi zuten, ikasleekin batera jokatu. Indarrak errekuaratzeko, jokoen ostean luntxa izan zuten guztiek. Orain, oporretan ondo pasatzera!!

Ipintzako ikasleen jaia



Motorzaleak Holandan

Bergara Bike taldeko **Juan Miguel Briongos, Jose Felix Elizburu, Josu Leturia eta Martin Odriozola** Holandako motor sari nagusia ikusten izan ziren, **Assengo zirkuituan**. Motorrean joan ziren, 3.000 kilometroko joan-etorria eginez. Hainbat zilindradatako lasterketekin gozatzeaz gain, boxeetan gidariekin egon eta barruko lana gertutik ezagutzeko parada izan zuten. Argazkian, Leturia eta Elizburu, Carlos Checarekin.

kontuola...



Antzuolako
jaixak 2000



Antzuolako

joixak

2000

KONTUOLA

61 zenbakia. Berezia.
2000ko uztailaren 7a.

Azaleko argazkia:
Kontuola

Idolaz elkarte, Antzuola Kazetariak:

Marijo Deogracias
Ainhoa Ugarteburu

Erredakzio kontseilua:

Miren Anduaga
Gotzon Iparragirre
Patxi Kortabarría
Jone Larrañaga

Testuen zuzenketak:

Maripi Laskurain
Lierni Legorburu

Telefonia eta faxa:

943 76 65 08,
Herri ikastetxea.



Alebin mailako talde irabazlea.

Saskibaloian irabazle

Amaitu da eskola kirola eta antzuolarrak txapeldun gelditu dira. Alebin mailako neska taldea saskibaloian lehenengo sailkatu zen. Antzuolako taldeak ekainaren 8an, eguenean, jokatu zuen finala

Bergarako Mariaren Lagundia-San Martin taldearen aurka. 14 eta 17 irabazi zieten antzuolarrek.

Zorionak koadrila eta segi horrela hurrengo ikasturtean ere!



Pegatina lehiaketa

“Ointxe ein, bihar be izan dein”. Horixe da aurten Idolaz euskara elkarteak antolatutako jaietako pegatina lehiaketako esaldi irabazlea. Pilar Aranguren esaldia da, eta Nagore Igarzak eman dio pegatiña itxura. Pilarrek 20.000 pezeta irabazi ditu.

Arrolaren kanpaldia

Arrolak antolatutako akanpada Erratzun (Baztanen) egingo da aurten, uztailaren 22-23-24-25 artean. Izena emateko epea uztailaren 6an hasi eta uztailaren 11an (asteartean) amaituko da Arrolaren egoitzan.

Animo eta apuntatu zaitezte!!!



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo



Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

ANTZUOLA

Apaintetak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu

Txirrindulari lasterketa domekan jokatuko da

Domekan izango da Antzuola saria. "Iñaki Lete VIII. txirrindulari lasterketa". 55. aldiz egingo da afizionatu mailako lasterketa eta 19, 20 eta 21 urteko txirrindulariek jokatuko dute. Lehendakari txapelketarako baliagarria izango da. David Herrero da txapelketa-ko lehenengo sailkatua, eta bera ere, Saunier Duval taldearekin batera, Antzuolan izango da. Iberdrola, Olarra, Banaka, Caja Rural, Baque eta Ulma Cegasa dira lasterketa jokatuco duten taldeetako batzuk. Lasterketa 09:30ean hasiko da eta helmuga 12:30ean izango da Herriko Plazan.

Ibilbideak 120 bat kilometro izango ditu eta Deskarga, Udana eta Asentzioko mendateak igaroko dituzte txirrindulariek.



Helmuga 12:30ean izango da Herriko Plazan.

Mozanbikeren alde

Mozanbikerako dirua jasotzeko kanpaina egin berri du Anelkar Gobernu Kanpoko erakundeak. Otsailean han gertatutako uholdeak zirela eta, martxoan hasi eta maiatzera bitartean diru bilketa egitea erabaki zuten bailarako GKEk. Antzuolan 376.863 pezeta jaso dituzte, eta bailaran, 6.672.666 pezeta (tartean hainbat enpresaren laguntza ere jaso dute). Jasotako dirua Intermon GKeri emango diote Mozanbikeren duten azpiegitura egiteko. Anelkar taldeko kideek positiboki baloratu dute egindako kanpaina eta antzuolar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

Presoen alde

Hilaren 12an iritsiko da Antzuolara "Euskal Presoen eskubideen aldeko martxa nazionala". Hori dela eta, Antzuolako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak ongi etorria egingo dio Errekalden eguerdiko 12:00etan, Bergarako bidea segitu aurretik.

Senideak taldeak antolatutako marxa horretaz gain, hilaren 9an, domekan, Aizkorriara ibilaldia antolatu du herriko Plataformak. Ibilaldi hau bailarako beste Plataformekin, Senideak taldearekin eta Gazte Ekimena taldearekin batera antolatu du Antzuolako plataformak, "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloarekin.



Hilaren 12an iritsiko da martxa.



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**Euskal
sukaldaritza**
**Eguneko
menua**



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43



**DESKARGA
AUTOAK**

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75



Juan Cruz



Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak

Bitxitegia
Marrokineria
Erlojuak

Herriko plaza 4, ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 66

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Jubilatuen bazkaria domekan izango da

Jubilatuen batzordeak aurten ere bazkaria egingo du domekan. 150 pertsona joango dira gutxi gora behera. Bazkariko menua, arrain zopa, biribilkia eta postrea izango dira, hau ardoz eta kabaz lagundua. Bazkariaren ondoren, erromeria izango da, "Gezalaga anai-arrebek" girotua, dantza gustura egiteko. Batzordekideen hitzetan "urtero urtero egiten dugu, eta oso gustura gainera; ona izaten da, gutxienez urtean behin, jubilatua bazkari batean elkar-tzea eta festa egitea; horregatik, lehen ekainean egiten genuen, baina jaiekin bat egiteko edo, uztailera pasa genuen bazkaria". Herriko gizon eta emakume zaharrenari omenaldia egingo diete bazkalostean.



"Gezalaga anai-arrebek" joko dute bazkalostean Jubilatuetan.

Zer iritzi duzu alardeari buruz?



Karmen Irizar

Nik sekula ez dut interes handirik eduki, baina ohi-tura eta tradizio bat da, eta, hortaz, jarrai dezala.



Iruñe Etxaniz

Ez zait asko gustatzen, baina jendeari gustatzen zaio eta tradizio bat da, eta, niregatik, segi dezala.




Lide Gabilondo

Oso gustuko dut, ume umetatik ikusi dut; niretzat Antzuolako herriari mesede egiten dio.



Manuel Carmona

Oso gustuko dut, niretzat herriko eta inguruetako jairik politena da inongo zalantzarik gabe.



Fernando Lete

Historian gertatutakoagatik ematen diot garrantzia, baina batzuk ez dute gustuko. Ni aldekoa naiz.



Karmen Larrañaga

Bai, ondo dago, joaten naiz ikustera eta oso gustura ikusten dut, ohitura polita dela uste dut.



Joseba Gastiain

Ospakizun berezia izaten da, urtero ospatzen da eta oso ondo dago.



Jose Luis Lizarralde

Horixe gustatzen zaidala! Antzuolarrona da eta denon artean gorde egin beharko genuke.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Baserriko oilaskoak
Baserriko zekorrak

Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34



OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

**ONDO PASAU
JAI HAUTAN!**

ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

Jai zoriontsuak izan!

Itzar

**LIBURUDENDA
ESTANKOA**

Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 60 62

Eguena

13

10:30

Umeendako jolasak Plazan, udaleku irekietako begiraleekin.

13:30

Umeen herri bazkaria
Herriko Plazan.

16:00

Umeek prestatutako ikuskizunak
Herriko Plazan.

18:00

Jaien hasiera iragartzeko
txupinazoa eta kanpaiak. Txistularien kalejira eta buruhandiak.

18:30

Txupinazoa, kanpaiak eta txistularien kalejira.

19:30

Salbea. Antzuolako abesbatzak abestuko du.

20:15

Oinarin taldearen saioa: umeen ikurrin dantza; udalbatzaren aurrekua; Antzuolako bandera eta **ikurrina jasotzea** Herriko plazan.

22:30

Muganix taldearekin
dantzaldia Herriko Plazan.

24:00

Suzko zezena, plazan.

24:30

Muganix taldea Herriko Plazan.



Iaz mairuaren alardea egin zuten umeek, euren egunean.

Umeak nagusi jaietako lehenengo egunean

Udalbatzaren aureskua baino lehenago, egunean, uztailaren 13an, goizeko 10:30ean umeen egunari emango zaio hasiera.

Udalekuetan parte hartu duten neska-mutikoen jokoak izango dituzte udaleku irekietako begiraleen ardurapean. Aurtengo udalekuetan, beste urte batzuetan bezala, 5 eta 12 urtera bitarteko haurrek denetik egiteko parada dute: barneko zein kanpoko jokuak, eskulana, mendiko irteerak, txangoak, igerilekura irteerak... Bi aste oso euskara lantzeko, ondo pasatzeko eta udako opporraldiei hasiera bikaina emateko. Haur jolasen ondoren, eta indarberritu ahal izateko, herriko neska-mutikoen bazkari

on-ona izango dute, eguerdiko 13:30ean. Arratsaldeko 16:00etan, udalekuei amaiera eman eta herriko festei hasiera emateko, udaleku irekietan ibili diren egunetan prestatu duten ikuskizuna erakutsiko digute herritar guztioi plazan.

Honen ondoren, jaiak iragartzeko txupinazo eta kanpaiak izango ditugu, arratsaldeko 18:00etan; ordu berean, eta neska-mutikoen poz eta beldurrerako, buruhandiak aterako dira txistulariekin kalejiran.

20:15ean, udalbatzaren aureskua aurretik, Oinarin dantza taldeko gaztetxoek ikurrin dantza eskeiniko digute Herriko plazan.

Egunean, uztailaren 13an, herriko neska-mutikoen eguna izango da




MUEBLES IGEA

Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

GAILUR
taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Arrueren Salbea abestuko du abesbatzak elizan

Jaietako lehenengo egunean, uztailaren 13an, jaiari hasiera emateko, arratsaldeko 19:00etan salbea kantatuko da. Antzuolako abesbatzak abestuko du, hau da, herriko abesbatzak eta parrokiako abesbatzak bat eginda kantatuko dute. Salbea herriko elizan abestuko da, meza ondoren. Korua hogeita hamar pertsonaz osatua egongo da, eta bertan emakumeek zein gizonezkoek parte hartuko dute. Salbea hala ere, ez da beti berdina izan, aurreko urtean salbe berria estreinatua zuen abesbatzak Antzuolako parrokiari. Patxi Azkarateren hitzetan "aspaldiko urteetan kantatzen zen salbea Arrueren salbea zen, baina ez dakigu zergatik ahaztuta eta lagata geratu zen, eta salbe herrikoia bat kantatzen hasi ziren. Horregatik, aurreko urtean hori aldatzea erabaki genuen, eta berriz Arrueren salbea hartu genuen jaietan abesteko. Jendeak atseginez hartu zuen aldaketa hori eta horregatik ez aldatzea erabaki dugu, eta aurreko urtean



Antzuolako abesbatza, egindako txangoetako batean.

ren Salbea kantatuko dugu. Azken finean, aurreko ohitura bat berreskuratzea nahi izan dugu. Ez dakigu datorren urtean zer egingo dugun, baina badirudi jendea gustura dagoela aldaketarekin".

Hemen daukagu, beraz, musika korala gustuko duten guztientzako aukera ezin hobea, Arrueren salbea entzun eta berarekin gozatzeko. Ez da modurik txarrera aurtengo jaiak hasteko.

Oiartzundik erromerian

Ixiar Oriak, Igone eta Izaro Ansak eta Aye-ko Zubimendik osatzen dute Muganix taldea. Laukote hau egunean Antzuolan izango da erromerian. Oiartzuarrak dira eta orain dela hiru urte ekin zioten jotzeari. Hala ere, bateria aurreko gehitu diote triki eta pandero hotsei. 21 eta 24 urte bitartean dituzte, eta Ixiarrek triki, Igonek baxua, Ayekok bateria eta Izarok panderoa eta gita-

rra jotzen dute. Ohiko kanten moldaketak eskaintzen dituzte, baina Izarok kontatu digunez, badute maketa antzeko bat ere. "Behin irrati baterako kantuak grabatzeko eskatu ziguten eta horri esker, maketa daukagu". Euren kantuak egiteari noiz eutsiko dioten galdetean "arin-arin bat badaukagu, baina oraindik behintzat ez daukagu denborarik horretan jarduteko. Ez da

gauza samurra doinuak asmatzea eta momentuz behintzat moldaketak egiten segituko dugu".

Muganix taldekoak Kilometrotan eta Ibilaldian ere aritu ziren iaz, baina euren herrian ikasitako erromeria dute gogoan modu berezian; "kubatar batzuen aurretik jo genuen eta jende asko izan genuen begira". Ia ba egunean ere horrela izaten den Herriko plazan.



EGUNKARIA

Ixiar, Igone eta Izaro.



HIRU
ARROZTEGIA

Antigua auzoa 8 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

ATEAK
•
LEHIOAK
•
ZORUAK
•

HORMA ARMAIRUAK

Ondo pasau jaixak!

Eguakitza

14

10:00

Txistulari taldearekin goizeresia.

10:55

Txupinazoa.

11:00-14:00

Umeendako jolas parkea,
Herriko plazan.

11:30

Meza nagusia.

12:30

Andoni Egaña eta Sebastian
Lizaso Zurrategin. Salda.

15:00-18:00

Umeendako jolas parkea
Herriko plazan.

18:00

Barruzka saioa Udal pilotalekuan.
Bi maila: 14 urte arte eta
14 urtetik gora

18:30

Poniak, zezen txikiak,
jabatoak, oilarrak... Zurrategin.

19:45

Suletinoak
Iparraldeko dantzak Herriko
plazan, Oinarin taldearen eskutik

23:00

Kiñu taldearekin dantzaldia.

23:00

Kontzertua, Beheko auzoan.



Egaña eta Lizaso bertsoan eta futbolean egingo dute eguakitzean.

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña Zurrategin

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña aspaldiko lagunak dira. Ia egunero bertso saiotan aritzen dira elkarrekin eta dagoeneko ia dena esan diote elkarri. Baina bertsoan finak direla erakusteko gogoia dute eta Antzuolan ere euren abileziaz gozatzeko aukera izango dugu zapatu eguerdiko bertso saioan. 19:00etan, urteroko futbol partidua jo-

katuko dute. Bertsolari eta bertsozaleen arteko partidua izaten da eta iaz Zumarragan jokatu behar izan zuten. Lehenengo aldiz irabazi egin zuten bertsolarietako orduan. Lizaso aitortu digunez, "futbol zelaiagatik izan zen edo, aurten ikusiko dugu, baina fitxaje onak ditugu taldean: Sarasola, Irazu, Fernando Loiola... Egaña bera ere jokalaria ona da".

Egan, Trabuko eta orain Kiñu

Egan askotan izan da herrian eta Trabuko bezala ere izan da berbenarik jaietan. Aurten, ordea, Kiñuk hartu die txanda aurreko biei. Gonzalo, Joxemari "Peke" eta Alberto anaiek eta Fredi ilobak osatzen dute taldea eta urte asko daramatzate berbena kontuetan; Egan eta Trabuko izenekin herrian izan direnean giro oso polita bizi izan dutela aitortu digu Gonzalok, eta aurten ere be-

tiko doinuak ekarriko dizkigute. Gonzalok baxua jotzen du eta "Pekek" gitarra. Albertok, berriz, bateria eta ilobak teklatura. Kiñu izenarekin orain dela hiru urte hasi ziren eta berbenak asko aldatu direla dioten arren, "Antzuolara gustura goaz" esan digu Gonzalok.

Kountria eta mexikarrak dituzte gustukoak, baina bestelakoak ere jotzen dituzte, jendeak eskatzen dielako.

Ondo pasau danok jaietan!



Gabilondo-Arregi harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

Ainhoa

drogeria

**ONDO PASAU
JAIXETAN!**

Kalebarren 13, ANTZUOLA

Zapatua

15

10:00

Txistularien kalejira.

10:55

Txupinazoa.

11:00

Herri kirol eta baserriko jolasen parkea: lastoa jasotzea, ingudea, laiak, kirrinka, igela, toka, birlak, zankoak... Hiru urtetik gorako haur, gazte eta helduendako.

11:00

Bergarako musika bandaren kalejira.

12:30

Bergarako bandaren kontzertua Zurrategin.

18:00

Mairuaren alardea.

19:00

Oinarin taldearen dantza saioa, plazan.

19:30

Txatunga Bemberen kalejira.

22:30

Fabula orkestrarekin saioa Herriko plazan.



Hori da hori itxura, mutilak!

Aldaketak alardean

JOSE LUIS KORTABARRIA "GORRI"

Zergatik laga zenuen alardea?

25 urte egon eta gero bazen garaia ni baino gazteago eta abilagoa zen norbait zaldi gainean jartzeko. Gainera, zorionez, Antzuolako mairuaren alardea oso sasoi onean dago, eta hobe izaten da osasun onean dagoenean aldaketa egitea. Zorionez iaz botatako erronka hartu dute, eta pozten naiz.

Diskurtsoa gertatzea zaila zen?

Diskurtsoa ikasi egin behar izaten da urtero urtero, hala ere, urteak pasa ahala samurragoa izaten da. Beti ez da osoa ahazten. Ardura eta larritasuna sartzen da diskurtsoa esateko momentuan, ahaztuko ote zaizun, mingaina tratatuko ote zaizun... Neure ustetan, diskurtsoa irakurria egin beharko litzateke, pergamino zuri batean ondo jarrita, hala ere pergaminoarenak badauzka bere eragozpenak, gorputz eta eskuetako espresioa galtzen da eta. Zailena, niretzat, armariaren ezaugarriak esatea da.

Nola aldatu da alardea azken 25 urte hauetan?

Ni hasi nintzenean, 1975ean, gaztelerez zegoen alardearen testua eta 1978an euskaratu egin nuen. Danborriena ere berria da, lehen ez zen danbo-

rrik alardean, txistulariek bakarrik desfilatzen zuten; orain, horren ondorioz, jende gehiagok hartzen du parte.

JOSEBA IPARRAGIRRE

Zerk animatu zintuen kapitainaren ardura hartzera?

Ez zen izan nik pentsatutakoa, eskatu egin zidaten ea nik egingo nuen. Nik entzunak nituen zurrumurru batzuk, baina martxora arte ez zidaten ofizialki eskatu.

Zer moduz daramazu lagintza?

Gai naiz diskurtso osoa hasi eta bukatzeko, etenen bat egingo dut, baina bakarrik eta kontzentratuta esaten dut, beste kontu bat izango da plazara ateratzean.

Larri ala lasai ?

Eguna gerturatzen doan heinean, poliki-poliki nerbioosoago jartzen ari naiz, ez nago egun guztian horrekin pentsatzen, baina ametsetan ere egin dut zuri geratzen nintzela; baina beno, ondo aterako da.

Zer uste duzu gertatuko dela?

Orokorrean ondo joango dela uste dut, nik neuk nere papera ahalik eta ondoen egingo dut, zalditik erortzen ez banaz ontzat emango dut nire lana.

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
 NATURAL ETA ONENAK
Juan Jose AGIRRE

Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 84



AITZ-GARBI
 taberna-jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Tf. 943 78 70 51

Sanba erritmoak Txatunga Bembe taldearen eskutik kalerik kale

Brasilgo erritmo bidez gozatzeko aukera izango dugu zapatuan. Txatunga Bembe talde bilbotarrak eskaintzen dituen erritmoak dira. Orain dela lau urte sortu zuten taldea Ino Nodar eta bere lagunek. Berak perkusio eskolak ematen zituen Euskal Herrian zehar eta euskaldunok horrelako erritmoak atsegin genituela eta, taldea eratu zuen. Hamabost lagun aritzen dira ordutik, herririk herri, Brasilgo erritmoak, sanba, jotzen.

Noiz sortu zen Txatunga Bembe?

Proiektua orain dela lau urte sortu zen, baina orain dela hiru erabaki genuen sanba jotzea.

Lehen zertan aritzen zineten?

Hasieran Brasilgo sanbaz gain, Kolonbiako Kumbia, Runbak, Kubako Konga eta Afrika Mendebaldeko doinuak ere jotzen genituen. Baina guretako gehiegi zen. Instrumentuak ere askoz gehiago behar genituen, eta asko eta erdi purdika baino, bat eta ondo jotzea erabaki genuen. Sanbarekin segitzea aukeratu genuen eta horretan ari gara ordutik.

Modan daude erritmo horiek?

Europako beste herrietan bezala, Euskal Herrian ere erritmo ezberdinen egarria dago. Bihotzetik eta gorputzetik ateratzen diren erritmoak eskatzen ditu jendeak. Jendearengana heltzea nahi dugu eta Brasilgo musika tradizionala, baina moldatuta, jotzen dugu.

Zenbat lagun zarete taldean?

Gaur egun hamabost lagun gara. Baina urte bukaera aldera hogeitazko gara; izan ere, gure proiektua ere handitzen doa eta orain Bilbon pabilioi bat daukagu. Gure helburua perkusio eskola finko bat eratzea da. Kontua da, taldean honetara neu bakarrik nabilela dedikazio osoz. Beste guztiak lanean eta ikasten ari dira; baina aurrerantzean, gauzak al-



Bilboko taldea kalejiran ibiliko da sanba doinuak jotzen.

datu egin daitezke eta bi urte barru, behar bezalako eskola bat izango dugu.

Herriz herri, zer eskaintzen duzue?

Jendeak eskatzen diguna. Gehiengotan kalejiran aritzen gara. Kontzertuek ere izango dute noizbait euren tartea. Nahiko genuke hor ere aritzea, baina horretarako musika tresnetan inbertsioa egin beharko genuke eta gehiago entsaiatu. Gaur egun, neguan astean hiru aldiz ditugu entseguak, eta udan, herriz herri aritzen gara. Antzuolara etorri aurretik esaterako, ekainaren 30etik uztailaren 15era bitartean, Araian, Deustuko Erriberan, Aramaion, Eibarren, Zumarra-

gan eta Trintxerpen izan gara. Urtean 50-60 aktuazio izaten ditugu. Iaz, "Korrika"ko abestia zela eta, 80ra iritsi ginen.

Antzuolan zer eskainiko duzue?

Kalejiran ibiliko gara; normalean jendea gurekin batera joaten da. Bi orduko emanaldiak izaten dira, baina geldiduneak egiten ditugu jendeak eskatzen duen lekuetan edo, giroa sortzeko aukera eskaintzen duten tokietan.

Zein musika tresna jotzen duzue?

Andamio edo bonbo handiak; kaixak; repenike edo agintzeko erabiltzen dena eta tanborinak edo pandero txikiak.

■ ■ ■
Arratsaldeko 19:30ean hasiko da
Txatunga Bemberen kalejira



GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

**Jaixetan...
Ondo pasau!**

TXOMIN GARAJEA

ad

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Domeka

16

10:30-13:30

Errokodromoa eta tirolina.

12:30

Ikusgarri, plazan. Hiru lagunek motozerraz egurrezko irudiak egingo dituzte: txerria, aulkiak, mesanotxea...

12:30

Incansables txarangaren kalejira Errekaldetik hasita.

14:30

Herri bazkaria, Herriko plazan, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

18:00

Profesionalen pilota jaialdia
1. partidua: Muruamendiarez-Sukia / Xala-Auxkin
2. partidua: Etxaniz-Goñi III / Berraondo-Zezeaga

18:30

Kukubiltxoren saioa Herriko plazan: Txirrikiz

20:00

Incansables taldearekin kalejira.

21:00

Egan berria taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.

24:00

Incansables taldearekin saioa Herriko plazan.

24:30

Egan berria taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

02:00

Incansables taldearekin saioa Herriko plazan.



Txirrikiz ikuskizuna eskainiko du Kukubiltxo taldeak.

Arrazakeriaren aurkako panpinen ikuskizuna

Kukubiltxo taldeak "Txirrikiz" ikuskizuna eskainiko digu domekan. Larrabetzutarrek euskal ipuingintzaren tradizioetik abiatzen dira euren ikuskizunetan eta "Txirrikiz" lanean ere horixe egiten dute. Arrazakeriaren aurka eta berdintasunaren aldeko istorioa sortu zuten Kukubiltxokoek eta aurtengo neguan estreinatu dute lana.

Josu Camara lan horren zuzendaria adierazitakoaren arabera "bertoko eta kanpoko ipuinen bitartez gaur egun pil-pilean dagoen gaia plazaratu nahi izan dugu". Jolasa, musika eta magia biltzen dute ikuskizunean eta hurrei arrazakeriaren aurkako mezua zabaldu nahi diete "eurak izan daitezen berdintasun nahiaren hedatzaile".

KONTAKIZUNA

Txirrikiz ipuina Errose Bustintza Mañariko idazleak orain dela mende bat inguru idatzitako ipuinean oinarritzen da. "Guk istorioa gaurkotu egin dugu eta gaur egungo gizarteko arrazakeriaren arazo

larria gainditzeko asmoz, Txirrikiz izeneko pertsonaia neskato etorkin beltzaren bihurtu dugu. Ipuin horretan ikusten da zein harreman duten ume bihurri batek eta pertsona marginatu batek. Argumetu horrekin, eskalearen ordez Afrika iparraldeko etorkin bat sartu genuen, arrazakeriaren gaia jorratzea interesgarria irudituz ziztaigun eta".

Lan honekin Kukubiltxok bere helburu nagusiari eutsi nahi dio: euskal kulturaren murgiltzea, euskal ahozko tradizioari zein ipuinei helduta.

Musika Bixente Martinezek egin zuen eta Oskorrik abestu. "Musikak protagonismo handia du Kukubiltxoren lan guztietan, eta horrek behartzen gaitu antzespen ia osoan dantzan aritzera. Lan honetan erabili dugun musikak bizigarri bat ematen dio eta erritmoa ikusleen barnean sartzeko da". Aktoreak Marifeli Etxeandia, Iurgi Etxebarria, Oscar Castaño, Javier Obregon eta Katrin Schlegel dira eta dantza ere egingo dute "moztzerroekin lan egiteak gorputzarekin berba egitera behartzen gaituelako".

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131

BERGARA 609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatua

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

Herri bazkaria AABk antolatua

Jaietako domekarako, azken urteetan legez, Antzuolako Amnistiaren Aldeko Batzordeak, bazkari herrikoia antolatu du elizako aterpean.

Bazkari hau oso arrakastatsua izan ohi da, eta aurten ez dute gutxiago espero AABko Antzuolako kideek. Beraien hitzetan, 180-200 pertsonarendako atara dituzte txartelak salgai. Dagoeneko salgai daude herriko tabernetan bai eta Gaztetxean ere. Prezioa ez da aldatu: 1.500 pezetan bakoitza.

Bazkaria Ugaoko "Komando Sukaldari" enpresak prestatuko du eta menua "guztien gustukoa izango da, horrelakoe-tan horretan saiatsen gara. Dena dela, horrelako herri bazkarietan jendearen umorea izaten da garrantzitsuena eta Antzuolako jaietan egiten dena izugarria izaten da".

Bapo jaten eman ondoren, herriko preso dagoen "Eltzikortari" omenaldia egingo zaio, eta sorpresatxo ere egongo da. Modu ezin hobea herritarrak batu eta presoak omentzeko.



Herri bazkaria 14:30ean izango da.

Motozerra erakustaldia Herriko plazan

Domekan Berastegitik etorriko dira hiru lagun motozerra erakustaldia eskaintzera. Denbora laburrean altzariak egiteko gaitasuna dutela eta, ikuskizun bitxia eskainiko dute eguerdiko 12:30ean, Herriko plazan.

Zer egiten duzue horrelako erakustaldietan?

Hiru lagun arituko gara eta bost bat motozerra erabili ditugu; zer egingo dugun sekreto da, ez dugu esango, ikusleendako sorpresa izatea nahi dugu eta; baina apur bat argitzeko, figurak, animaliak, altzariak, etab... egiten ditugu motozerrekin.

Noiztik zabilzate horretan?

Beno, aurten hasi gara gure herritik kanpora egiten, beste urte batzuetan herrian eta inguruetan aritu izan gara. Azken urte honetan leku askotatik deitu digute.

Non egin dituzue beste erakustaldi batzuk?

Nafarroan eta Gipuzkoan ere egin ditugu erakustaldiak, eta hilabete honetan Antzuolatik aparte ere badaugu erakustaldi gehiago egiteko asmoa.

Nola hasi zineten hau egiten?

Apustu baten ondoren hasi ginen, ea nork motozerra batekin aulki bat azkarrago egin. Afizio hau gustoko dugunez, erakustaldiak egitea erabaki genuen, eta afizioa ofizio bilakatu da. Kontuan hartu behar da, gure herrian, Berastegin, basoan lan egiten genuela eta zerbait berria egiteko gogoia etorri zitzaigun.

Zelako harrera izaten dute zuen lanek?

Oso ona, joaten garen leku guztietan oso ondo hartzen gaituzte, zahar zein gazteek. Ikuskizun polita izaten da eta jendea gustura egoten da gure lanari begira.

SURPE
taberna

TRAGO BAT
hartzeko tokirik
APROPOSENA

Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

PINTXOAK
BOKATAK
KAZUELITAK

Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68

LARREA
TABERNA

Jaixetan ere Eltzikorta eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

GOIZPER

Transmisioak

- Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, neumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.
- Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenkako biragailuak. Espeka bereziak.

Antigua auzoa 4
20577 Antzuola (Gipuzkoa)

211 posta kutxatila
20570 Bergara

FABRIKAZIOA:

GOIZPER KOOP. ELK.



MATABI

Ihinztagailuak

- Nekazaritzan, lorategian, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautseztagailuak.

Tf. 943 78 60 00

Faxak 943 76 60 08

943 78 70 95

E-mail: goizper@goizper.com

<http://www.goizper.com>



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577

Antzuola

Tf. 943 78 60 09


Faxa 943 78 70 34

INTERNET:

<http://matz-erreka.mcc.es>



Ate eta pertsianak zabaltzeko
automatismoen fabrikazioa



TROKELAY, S.A.
(Antzuola)

ELAY INDUSTRIAL, S.A.
(Antzuola)

SEYTRA, S.A.
(Antzuola)



ELAY, S.A.
Lizarragako hiribidea z/g. 20577 ANTZUOLA
Tf. 943 76 61 00. Faxa 943 76 62 62

balzers
Enpresa partizipatuak



BALZERS-ELAY, S.A.
(Antzuola)
BALZERS MEXICO,
S.A. de C.V.
(Mexiko)

CELAY, S.A. De C.V.
(Mexiko)



ELAY DEUTSCHLAND, Gmbh
(Alemania)

Ondo pasau Antzuolako jaietan!

Eguraldi ona eta jendez leporaino

San Martzialak giro ezin hobean igaro dira aurten ere. Eguraldiak ere izan du horretan zerkusirik. Euria iragarrita zegoen, eta batek baino gehiagok mahai azpian bazkaldu beharko ote zuen ere pentsatu zuen arren, eguraldia portatu egin zen. Jaia beti bezain polita izan zen, eta urtero bezala, **herri jolasek** alaitu zuten arratsalde partea. **Txingetan irabazle Iñaki Labaka** izan zen gizonetzkoetan, eta **Naiara Beistegi** emakumezkoetan. Bestetik, **sokatiran** eta gizonetzkoeti dagokienez, **"Bulla"** taldeak eraman zuen lehenengo saria, eta emakumezkoetan, berriaz, **"Potx"** ek.



Bola jokoak ikusmina sortu zuen.



Gizonetzkoak emakumezkoari, aureskua.



Altza, altza!



Jende ugari joan zen eguakitzeko letaniara.



Bazkaria prestau ezean, ezin bazkaldu...



Sabela ondo bete eta dantzan hasi aurretik, txolartean.

Irukurutzeta, erroten balizko kokaleku

Udalak parke eolikoaren egitasmoa gaitzetsi egin du

Euskal Autonomi Erkidegoan 13 parke eoliko egitea aurreikusten da. Horietako bat, Irukurutzetako, Bergarako lurretatik pasatuko litzateke. Argindarra haizearen bitartez lortzea oso era egokia dirudi: ez du kutsadurarik sortzen, energia berriztagarria da... Hala ere, badirudi asko direla sortarazten dituen kezkak. Azkenengo bi hilabetetan egon da ikusgai Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapena, eta Bergaran lau taldek aurkeztu dituzte iradokizunak. Ekainaren 26ko Udalbatzan, Eusko Jaurlaritzari Irukurutzetako parke eoliko egiteko asmoa bertan behera laga dezala eskatzea erabaki zuen Bergarako Udalak.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak iazko abenduan prestatu zuen Parke Eolikoei buruzko Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena, eta bertan finkatzen da zenbat eta non kokatuko diren parke eolikoak. Dokumentu hau EAE osoko plan bat da, hau da, erkidego osora begira egindako txostena. Eusko Jaurlaritzaren helburua, Euskadiko Energiaren Plan Estrategikoan jasotzen dena lortzea da: bost urte barru, 2005. urterako, EAEko biztanleok kontsumitzen dugun energiaren %3 gutxienez, haizearen bitartez ekoiztea.

29 KOKALEKU POSIBLE

Lehendabiziko zeregina EAEko azterketa eoliko bat egitea izan zen. Horrela, haizearen ezaugarrien arabera hainbat kokaleku identifikatu zituzten. Irizpide hauen arabera, 29 kokaleku egoki aurreikusi ziren.

Ondoren, 29 kokaleku hauen balorazio tekniko egin zuten. Horrela, arazo orografikoak zeuzkatenak baztertu egin ziren. Teknikoki egokiak zirenen zerrenda zutenean, hauen errentagarritasun ekonomikoa eta ingurugiroan eragiten zuten edo ez aztertu zuten.

Azkenean, errentagarritasunik handiena eta eraginik txikiena zutenak aukeratu ziren hasierako 29 posibleetatik, guztira, 13 kokaleku.

IRUKURUTZETAKO PARKE EOLIKOA

Lurralde Plan Sektorialaren arabera, aurreikusten diren 13 parke hauetatik bat, Irukurutzetako, Bergarako lurretatik pasatuko da. Guztira lau udalerritako lurra hartuko ditu: Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Azkoitikoak. Udaletxe guz-

tietan egon da ikusgai LPSa, eta, Bergaran behintzat, badirudi nahiko jende hurbildu dela berau ikustera.

37 haize errota jarriko dira mendilerro honetan eta guztira, 4,7 kilometroko luzera izango du parkeak. 13 parkeetatik txikienetakoa izango litzateke Irukurutzetako, izan ere, badira 15, 20 edota 17 kilometrotako parkeak ere.

Hasiera batean 38 haize errota jartzea aurreikusten bazen ere, pagadi batek haizea frenatzen zuela eta, errota bat gutxiago jartzeko erabakia hartu zen.


Aipatutako 37 haize errota hauek, Lurralde Plan Sektorialaren arabera, 56,1 GWh ekoiztuko lukete. Idea bat egitearren, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren datuen arabera, EAEn 1.604 GWh ekoiztu zen 1998. urtean, eta 13.381 GWh kontsumitu genuen.

PARKE EOLIKOA EZ EGITEA ESKATU DU UDALAK

Esan bezala, bi hilabetez egon da ikusgai LPSaren aurrerapen hau Bergarako Udaletxean. Joan zen astean, ekainaren 27an, amaitu zen Eusko Jaurlaritzari iradokizunak aurkezteko epea. Guztira lau aurkeztu ziren Bergarako Udaletxean: Ingurugiro

Haize errotak Karakatetik Irukurutzetara





EAEn guztira 13 parke eoliko egitea aurreikusten da. Argazkian, Elgeako mendilerroan haize errota jartzen.

JOSU GARAI

Batzordearena, Kapirixorena, Udal museologoarena eta Mendia Bizirik taldearena.

Epea hilaren 27an amaitzen zenez, aurreko egunean, ekainaren 26ko Udalbatzan aztertu zen parke eolikoaren gaia, eta aurkeztutako lau iradokizunetatik hiru onartu ziren bertan. Mendia Bizirik taldearena, berandu aurkeztu zela eta, ez zen formalki onartu, baina Eusko Jaurlaritzari helaraztea erabaki zen. Udalbatza honetan, beraz, behin talde bakoitzaren iradokizunak aztertuta, Eusko Jaurlaritzari parke eoliko egiteko asmoa bertan behera laga dezala eskatzea onartu zen.

Gainerako herriei dagokienez, Soraluze, Azkoiti eta Elgoibarko Udalek ere, parke eolikoaren egitasmoa bertan behera lagatzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari.

INGURUGIRO BATZORDEAREN IRADOKIZUNA

Ingurugiro Batzordeak hainbat argudio ematen ditu parke eoliko egiteko asmoa atzera botatzea eskatzeko. Alde batetik, aurreikusten den parkeak eragin nabarmena egiten ei dio herrian daukagun pagadirik ederrenari. Eragingo lukeen inpaktu bisuala ere oso handia litzateke Ingurugiro Batzordearen iradokizun honetan azaltzen denez. Bestalde, Agarreburu-Irukurutzetako mendi berezi eta enblematikotzat jo-

tzen du txostenak, eta ibilbide luze bat egiteko asmoa ere ba ei dauka Udalak, mendi irteerak egiteko paraje paregabea da eta.

Azkenik, Udal museologoak eta Kapirixok egindako alegazioekin bat egiten du Ingurugiro Batzordeak, eta zera eskatzen du: Irukurutzetako parke eoliko egiteko asmoa bertan behera lagatzea, eta Karakate-Irukurutzeta-Agarreburu "babestutako biotopo" izendatzea.

LPSaren aurrerapena bi hilabetez egon da Udaletxean, eta lau iradokizun aurkeztu dira

37 haize errota jarriko lirateke parke eoliko honetan, eta 4,7 kilometroko luzeera izango luke

KAPIRIXO ETA UDAL MUSEOLOGOA BAT DATOZ

Kapirixo, Ondarea babesteko Deba-goieneko elkarteak, eta Udal museologoaren alegazioak bat datoz euren argudioetan. Biek azpimarratzen dute Elosua eta Soraluze artean kokatzen den eremu edo estazio megalitiarrak kalteak jasango lituzkeela parke eoliko eraikitzekotan. Megalito hauek guztiak Neolito-Brontze arokoak dira (K.a. 3000-900). 1990eko Euskal Kultura-Ondarearen Legeak Monumentu multzotzat jotzen ditu, eta LPSan, berriaz, monumentu "puntual" bezala definitzen dira. Beraz, bai museologoak eta bai Kapirixok bere estazio megalitiko izaera errespetatua izan dadila eskatzen dute. Udal museologoak bere iradokizunean azaltzen duenaren arabera, parke eolikoak zuzenean eragingo lieke Soraluzeko megalito guztiei, eta Bergarako biri: Irukurutzetako trikuharriri eta Kurutzebakarreko tumuluari.

Mendia Bizirik taldeak zentral eolikoek orokorrean gure mendiek dituzten baloreak era larrian kaltetzen dituztela argudiatzen du, eta gainerako taldeek bezala, zentral eoliko eraikitze-ko asmoa alde batera laga dezala eskatzen du bere txostenean.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren esku daude dagoeneko iradokizun hauek guztiak, eta orain, ikusi egin behar zer erabaki hartzen duen.<

Aurtengo Kirol Sariak eguaztenean banatuko dira Kultura Etxean

Udal Kirol Zerbitzuak eta BERRIGARAK aurtengo Kirol Sariak banatuko dituzte datorren eguaztenean, hilak 12, 19:30ean Kultura Etxean. Aurreko ekitaldietan bezala, helburu nagusia denboraldian zehar herriko kirolariek egindako lana nabarmentzea da. Kirol elkarte guztiek kirolari bana izendatuko dute. Talde guztiei saridunak aurkezteko gonbidapena luzatu zaie eta astelehenera arte BERRIGARAK erredakzioan jasoko dira saritutako kirolarien izenak.

Bestalde, ohikoa den bezala, kirol elkarteek eta Kirol Zerbitzuko teknikariek Bergarako kirola bultzatzeko lan aipagarria egin izan duen pertsona bat omendu nahi izan dute. Aurtengo saritua hainbat urtetan Ariznoa gimnasia erritmiko taldean entrenatzaile lanetan ibilitako Alicia De Cesar naparra izango da. De



Argazkian, iazko edizioan saritua izan ziren herriko kirolariak alkatearekin eta Iñaki Ugarteburu kirol teknikariarekin.

Cesarrek oroigarria jasoko du gimnasiaren alde herrian egindako lanagatik. Iaz Reyes Azkoitia pilota entrentzailea izan zen sari berezia eskuratu zuena.

Azkenik, aurtengo kirol talderik onena ere izendatuko da eguaztenean. Herriko kazetariak erabakiko dute zein den aurtengo saritua. Iazko ekitaldian, Bergara

Kirol Elkarteko futbol sailak eraman zuen saria. Aurten ere talde asko dira lan aipagarria egin dutenak eta ez da erreza izango erabakia hartzea.

Bergarar ugari "Quebrantahuesos" proban

Herriko 18 txirrinduzalek bukatu zuten joan zen ekainaren 17an jokaturako "Quebrantahuesos" proba. Bertan lau milatik gora lagun gora izan ziren partehartzaileak. Sabiñanigotik irten ondoren, partaideek 205 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, tartean Somport (1.640 metro), Marie Blanque (1.035 m.), Portalet (1.794 m.) eta Hoz (1.272 m.) mendateak igoz.

Aurtengo edizioan Miguel Indurain naparrari omenaldia egin zioten antolatuzaileak.

Bergararrei dagokienez, Arkaitz Mendizabalek egin



Probaren 10. edizioan Miguel Indurain txirrindulari ohia omendu zuten. DV

zuen denborarik onena, 6 ordu eta 8 minuturekin. Mendizabalek 33 km/orduko abiadura markatu zuten

bataz beste. Roberto Clavijo irabazleak 5 ordu eta 47 minutu behar izan zituen.

Sailkapena

30.	Arkaitz Mendizabal	6:08:00
71.	Arkaitz Ruiz de Loizaga	6:17:00
266.	Rikardo De Goñi	6:42:00
300.	Felix Igarza	6:45:00
1.375.	Garikoitz Arregi	7:51:00
1.396.	Oscar Ortiz	7:52:00
1.970.	Jose Ignacio Aranburu	8:23:00
2.006.	Juan Mari Olabarria	8:26:00
2.039.	Jesus Sanz	8:29:00
2.153.	Iker Etxebarria	8:34:00
2.201.	Antonio Verguizas	8:37:00
2.206.	Jose Javier Zabaleta	8:37:00
2.348.	Jose Maria Jauregi	8:46:00
3.200.	Benigno Menor	9:42:00
3.540.	Martin Cantero	10:12:00
3.818.	Alexander Uriarte	10:45:00
3.930.	Esteban Lazkano	11:08:00
4.034.	Martin Garmendia	11:57:00

"Piti" Unamuno BKEko presidente

Miguel Angel Unamuno "Piti" izango da Bergara Kirol Elkarteko presidentea datozen lau denboraldietan, Carlos Arnaiz ordezkatzuz. Iñaki San Jose eta Iñigo Zaitegi presidente ohiekin zortzi urtez direktibo lanetan ibilitako "Piti" Unamunok taldearen zuzendaritzaren ardura hartzea onartu du. Era berean, Julio Mendaratz diruzainak eta Miguel Angel Sanz, Iñaki Lazpiur eta Jose Miguel Lete direktiboek zuzendaritzan jarraituko dute. "Piti"ren hitzetan, "jende gaztea sartu da zuzendaritzan eta 17 laguneko taldea osatu dugu. Gure helburua datozen lau urteetan elkar-

teak dituen taldeak sendotzea izango da. Datorren denboraldian 17 milioi inguruko aurrekontua izango dugu". Azken zuzendaritza batzordean jakinarazi zenez, azken denboraldiko superabita 1.200.000 pezeta ingurukoa izan da. Fitxaketei dagokienez, Errasti golegilea taldera itzuliko da eta Errealeko jubenilean arituko den Paco Santiagok eta Koldo Erostarbe elgetarrak hirugarren mailako futbol taldean jokatu dute. Atezain bat fitxatu nahian ere bada biltza zuzendaritzakoak. Bestalde, Jon Anduezak Aurrera Vitorian jokatu du datorren denboraldian.



Argazkian, "Piti" Unamuno BKEko presidente berria.

Bergarak bere sorreraren 50. urteurrena ospatuko du 2002. urtean eta Aitor Eraña izango da ospakizun

ekitaldiak antolatzeaz arduratuko dena. Karlos Lasa, berriz, 2. erregionaleko entrenatzailea izango da.

Futbol eskola gaztetxoek harrobia lantzen

Amaitu berri den denboraldian 1987an eta 1988an jaiotako gaztetxoek zuzendutako futbol eskola izan da martxan. Jabi Artega, Jesus Joakin Balzategi, Pedro Jausoro eta Julian Ugalderen ekimenez, Bergaran egin den lehenbiziko esperientzia izan da honako hau. Julian Ugaldek azaldu digunez, "helburua, konpetitzen hasi baino lehenago, mutikoei kontzeptu taktiko eta tekniko batzuk erakustea izan da, etorkizunean garatuko dituzten kontzeptuak, hain zuzen ere". Aste-an behin entrenatu dira, eta, bakoitzak bere ikastetxeare-



Futbol eskolan aritutako gaztetxo talde bat Javier Ugalderekin.

kin jokatu izan du eskola kiroleko ekintzetan. Futbol eskola irailetik maiatzaren azkenera egin da martxan.

Hasieran 1988an jaiotako 25 mutiko eta 1987an jaiotako beste 15 hasi ziren entrenatzen. Denboraldia

joan ahala kopuru horrek behera egin zuen. Gipuzkoako Federazioak, Diputazioak eta Errealak, elkarrekin, eskola futboleko teknifikazio zentruak antolatu zituzten, eta, Ugalderen hitzetan, "kurtso bukaeran jokalaririk gutxiarekin amaitu dugu". Dena den, balorazioa positiboa da; "horrelako adinetan lan interesgarria egin daiteke mutikoei eta aurrera begira hemen ikasten dutena baliogarria zaielakoan nago. Ordenuz jokatzea, taldekideak kontuan izatea edo bakoitzaren funtzioak zehaztea irakasten saiatu gara".

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

IRURAK PINTURAK S.L.
 ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
 MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
 IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA
 AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
 TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
 FAXA: 943 76 09 32


 Irizar 2
 ☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Espainiako gimnasia txapelketara

Eibarko Ipurua gimnasia erritmiko taldeko Ane Miren Fernandez, Leire Lasa eta Aintzane Narbaez gimnasta bergararrek astebukera honetan Ourensen, Galizian, jokatu den Espainiako txapelketan hartuko dute parte. Ane Miren Ane

Susaeta eibartarrarekin jubenil mailan izango dugu lehian, sokarekin eta zintarekin. Aintzane eta Leirek junior mailan konpetituko dute, Aintzane sokarekin eta Leirek uztaiarekin. Bergararrak denboraldi bikaina egiten ari dira Ipuruarekin.



Ane Miren Fernandez, Aintzane Narbaez eta Leire Lasa.



Argazkian joan zen urteko itsas ibilbidearen irudi bat.

Saturraran-Deba trabesia

Beti-Busti kirol elkarteak eta Gipuzkoako piraguismo federazioak antolatuta, Saturraran-Deba itsas ibilbidearen VII. edizioa jokatu da domekan, uztailak 9. Irteera Saturrarango hondartzatik egingo da 10:30ean, eta parte hartzen duten guztiek ordu erdi lehenago eman beharko dute izena irteeran.

Proba eguerdi aldera amaituko da Debako hondartzan eta jarraian kaiak surf erakusketa egingo da. Azkenik, partaide guztiendako luntxa izango da. Iaz 40 lagunek hartu zuten parte trabesian. Probaren inguruko argibide gehiago 609 98 00 10 (Iñazio Azpeitia) telefono zenbakian jaso daiteke.

Kirol materiala euskaraz

Silvia Arribas, Leire Cano eta Onintza Garcia soraluzetarrek aerobikari buruzko fitxak euskaratzeko beka jaso dute. Debagoieneko euskara eta kirol zerbitzuek egindako deialdian, lau lan aurkeztu ziren. Epaimahaikideek erabakitakoaren arabera, goian aipatutako hiru lagunek bost hilabeteko epea izango dute aerobikaren inguruko 60 bat fitxa euskaratzeko eta lana datorren udarako argitaratzea espero da. Aurten 400.000 pezetako bi beka eskaintzea aurreikusuten zen, bata aerobikarena, eta prestakuntza fisikoaari buruzkoa bestea. Azken honetarako bi lan aurkeztu ziren, baina epaimahaiak beka ez ematea erabaki zuen.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



Nagusien txapelketa final laurdenetan

Nagusien liga eguaztenean bukatu zen eta Arloteak (golik jaso ez duen talde bakarra), Fatxurtu, Osintxu, Down, Mongatxurak, Gore, Angiozar eta Matxakategi taldeak dira finalaurdenetarako sailkatu direnak. Astelehenean eta martitzenean erabakiko da zeintzuk pasatzen diren finalerdietara. Astelehenean Arloteak eta Gore taldeak izango dira aurrez aurre, finalaurdenetako partidurik interesgarrienetako bat jokatuz. Beteranoetan, ligako azken jardunaldia zen jokatzekoa eta datorren egunean finalerdiak jokatuko dira, A eta B multzoko bi lehenak elkar gurutzatu direlarik. Nesketan, seniorretan, Lai Lai eta Zutaz pentsatzen ditugu indartsuenak orain arte. Zutaz pentsatzen-ek 3-1 irabazi zion Potzuri azken jardunaldian (argazkian). Kadeteetan Antzuola uste baino errezago nagusitu zitzaion Baleike taldeari (3-0).

azken emaitzak

NAGUSIAK

Uta-Mongitxurak	4-6
Wartxutale-Tojhu	3-2
Arloteak-Txokokuak	6-0
Osintxu-Down	3-1
Altos Pornos-Fo Fo Fo	3-2

BETERANOAK

Txipiron-A Ze Flaxa	0-11
Bar Canalejas-Ezinleike	4-3
La Guipuzcoana-Bildurbarek Opel Lam	5-3
Arloteak-Os Jardineiros	7-1

NESKAK

Baleike-Antzuola	0-3
Eka-Gu ta gutarrak	6-0
Zutaz pentsatzen-Potzu	3-1
Pentol's team-Ogizun	1-5
Antzuola-Lai Lai Lai	0-1

partiduak

NAGUSIAK

Astelehena 10

- 19:15: Arloteak-Gore (finalaurdenak)
- 20:30: Osintxu-Matxakategi (finalaurdenak)

Martitzena 11

- 19:15: Mongatxurak-Fatxurtu (finalaurdenak)
- 20:30: Angiozar-Down (finalaurdenak)

BETERANOAK

Eguena 13

- 19:30: Finalerdia
- 20:30: Finalerdia

NESKAK

Eguakitza 7

- 19:00: Antzuola-Eka eta Eibartarrak-Baleike
- 20:00: Aldrebesak-Jo ta ke eta Ogizun-Antzuola
- 21:00: Potzu-Pentol's Team eta Elgeta-Zutaz pentsatzen

Eguaztana 12

- 19:00: Kadeteen finalerdiak
- 20:00: Seniorren finalerdia
- 21:00: Seniorren finalerdia

Eguakitza 14

- 18:30: Kadeteen finala
- 19:45: Seniorren finala

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arioteak	13	5	14	0
2. Fatxurtu	9	5	11	6
3. Altos Pornos	9	5	9	9
4. Fo Fo Fo	7	5	13	11
5. Txokokuak	0	5	3	23

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	15	5	19	6
2. Down	12	5	9	7
3. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	6	4	4	5
4. Ezinleike	3	5	6	10

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	12	2
2. Gore	9	4	7	5
3. Wartxutale	6	4	4	8
4. Tojhu	3	4	5	6

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	12	4	10	3
2. Matxakategi	7	4	6	4
3. Game Over	6	3	10	9
4. Mongitxurak	3	4	8	11
5. Uta	1	4	9	16

Beteranoak A

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	7	3	13	5
2. Aintzinakoak	6	3	24	7
3. Bar Canalejas	6	4	13	12
4. Ezinleike	4	3	10	9
5. Os Jardineiros	0	3	2	29

Beteranoak B

	P	J	GA	GK
1. La Guipuzcoana	7	3	11	6
2. A Ze Flaxa	6	2	22	0
3. Bildurbarek Opel Lam	3	2	14	6
4. Sora	1	2	2	16
5. Txipiron	1	3	2	23

Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Antzuola	13	5	18	0
2. Baleike	12	5	17	9
3. Eka	9	5	10	9
4. Aldrebesak	7	5	10	8
5. Jo ta ke	6	5	15	26
6. Gu ta gutarrak	0	6	1	40

Neskak, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Lai Lai Lai	18	6	25	4
2. Zutaz pentsatzen	12	5	31	4
3. Ogizun	9	5	12	11
4. Elgeta	4	5	9	15
5. Potzu ta zapaburuak	4	5	7	14
6. Pentol's Team	3	5	5	32
7. Antzuola	3	5	8	16

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Iraburun (Bolu), 87 m².
943 76 08 47.

Soraluzen pisua salgai.
50 m². Jantzita, 5,8 mi-
lioni. 943 75 21 36.

Apartamentu txikia
Barrenkalean.
Amueblatua.
656 740 165 (Mikel).

Etxe handia salgai
Morentinen (Nafarroa).
Deitu 943 76 23 12
telefonora.

Barrenkalea.
Egunez: 656 732 026.
Gauetz: 943 35 39 91.

Jaka. Igerilekua, tenis-
pista... 943 76 29 56.

ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan udan
Torreviejan.
943 76 35 26 / 43 77.

Apartamentua
alokairuan Benidormen.
Levante hondartzan,
lehen ilaran.
943 74 38 27 / 20 31.

Apartamentua Saloun,
uztailean eta irailean.
Deitu 943 79 88 50
telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18m²)
lokalak alokairuan.
606 96 23 80.

4. LANA

ESKAINZAK

Neskak garbiketa lanak
egingo lituzke jatetxe
batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke
uztailetik iraileira bitar-
tean. 943 76 39 91.

Neska umeekin lan
egiteko gertu. Esperien-
tzia. 943 76 53 71.

Neska lanerako gertu
udan. 943 76 00 24.

Neska gaztea, garbiki-
ta lanak, umeak zaindu
edo dendan lan egiteko
gertu. 600 321 302.

ESKAERAK

Etxeko lanak egiteko
eta haurrak ikastolara
eramateko neska behar
da. 943 76 31 11.

Emakumea behar da
umeak zaintzeko. 943
76 05 87.

Emakumea behar da

2. GARAJEAK

SALDU

Ibargarai. 943 76 00 93.

Matxiategi.
943 76 23 12.

Bolu. 2.000.000 pta.
943 76 47 99 (gauetz).

Bolu. 2 plaza.
616 049 865.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan
Zubiaurren. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal ko-
mertziala hartuko nuke
alokairuan, 40-60
m²koa. 646 673 204.

Zubiaurren garajea
hartuko nuke.
Deitu 943 76 08 26
telefonora.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi
nahi nuke S. Lorentzon.
300 m². 607 82 53 06.

Pisua alokairuan udan
Torreviejan.
943 76 35 26 / 43 77.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu edo ero-
siko genuke Bergaran
edo Antzuolan.
943 76 39 16.

Etxea alokatu edo ero-
siko nuke Bergaran edo
inguruan. 94 446 43 84
/ 659 506 679.

Pisua alokairuan hartu-
ko genuke San Antonio-
Labegarieta inguruan.

Deitu 943 76 18 73
telefonora.

Pisua edo logela
hartuko nuke alokairuan
Bergaran edo inguruan.
646 975 367.

ETXE KONPARTITUAK

Iruñean, NUP ondoan,
pisua osatzeko bi mutil
nahi nituzke.
943 76 33 88.

Donostiako erdialdean
pisu handia konpartitu-
ko nuke urte osoan.
670 087 427 (Ainhoa).

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

KONDE P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"
BAP LA VNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

MUJIK U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZIA

GOXO-TOKI

Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 24. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

edadetua zaintzeko, uztailetik urrira; zapatu eta domeketan ere bai. 943 76 35 11.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

LH eta DBHko 1. ziklorako klase partikularrak ematen dituzte uztailean. 943 76 25 90.

Klase partikularrak ematen dituzte uztailean. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

Udan klase partikularrak ematen dituzte: mate, fisika eta kimika. 943 76 59 15 (Amaia).

ESKAERAK

Ingeniaritzako ikasleak kimikako klaseak hartuko lituzke. 943 76 22 95.

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (ingeniaritza 1. maila). 943 76 10 44.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

Trial motoa. 250. 125.000 km. 943 79 78 36.

Seat Panda oso merke. 656 743 272.

Mitsubishi Pajero motza. 1992. 110.000 km. 943 76 02 51.

Scooter motorra. Skipper 125. Matrikulatua. 943 76 61 05.

Opel Kadett (SS-AL). 667 209 279 (Iker. 18:30etik aurrera).

Ford Escort 16V familiarra (SS-BB). 943 79 91 27.

Kawasaki GPZ 400 FI motoa. 943 70 21 11.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ahuntzak salgai. 943 76 48 07 (Gorka).

Setter ingeles txakurkumeak. 943 20 31 01.

Caniche txakurkumeak. Arrak eta emeak. 943 76 57 16.

Behorra eta 2 moxal. 943 76 29 67.

BESTELAKOAK

Txakurkumeak opari. Deitu 943 76 21 55 telefonora.

Bi urteko katu siamesa oparitzen dut nik ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

8. DENETARIK

SALDU

Inesca Viena karrodenda, ia berria. 943 76 43 80.

Wip-it piragua. Osagarriekin (arraunak, txalekoa...). 150.000 pta. 943 79 78 36.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela. 5.000 pta.. 943 76 07 50.

Egongelako altzarria. Berria. 2,8 m. luze. 943 76 41 31.

Play Station: txipa, 3 aginte eta 3 joko. 943 76 47 82.

Karabana plegablea. 943 76 58 05 / 41 55 (gauz. Bibi).

Bi logelako kanpindena.

da. Oso berria. 943 74 05 37.

Lasterketetako bizikleta. Kadete maila. 20.000 pta. 943 76 07 87 (gauz).

EROSI

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

GALDU

Reebok motxila beigea galdu nuen Seminarioan ekainaren 23an. 943 76 44 95.

Ekainaren 22 inguruan eguzkitako betaurrekoak galdu nituen. 943 76 47 93.


AURKITU

Giltza batzuk azaldu dira Antzuolako botikan. Udaletxean daude.

Gameboy bat topatu dut. 943 76 59 16.

BESTELAKOAK

Txakurra edukitzeko txabola behar dut Deitu 607 448 531 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MEKANIKA MANTENIMENTURAKO 2 TEKNIKARI
Goierri. 32882/2

LOGOPEDA LAGUNTZAILEA
Sopela-Getxo. 34460/1

MEKANIKA MANTENIMENTURAKO TEKNIKARIA
Debabarrena. 33131/2

HOTZ INDUSTRIALAREN MENTENIMENTUA
Debagoiena. 33459/2

HANDLING LANGILEA
Arabar Lautada. 33327/4

MANTENIMENTURAKO TEKNIKARIA
Debabarrena. 35163/2

EUSKERA ITZULTZAILEA
Arabar Lautada. 33333/1

GASOLINDEGIRAKO LANGILEAK, 3
Osintxu. 35232/3

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 33343/3

IJAVA IRAKASLEA
Bilbo. 34420/1

IRAKASLEA
Arabar Lautada. 33484/6

LH II ELEKTRIZITATEA EDOTA ELEKTRONIKA
Zaratamo. 34491/2

ATS/DUE
Bilbo. 34857/6

EKONOMIA EDOTA ENPRESA ZIENTZ. LIZENTZIATUA
Amorebieta. 34501/3


KOMERTZIALAK 5
Bilbo. 34737/2

ELEKTRIZISTAK, 15
Bilbo. 34545/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak


943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

Sukaldeko GARBIKETAK

egiteko pertsona behar da jatetxe batean

943 76 59 19

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



Gozogintzan aintzindari.

Santa Marinako konponketa lanak datorren irailean hasiko dira

Proiektua Aste Santu inguruan amaitu zuten, eta horren arabera, Santa Marina parrokia barrutik eta kanpotik berriztuko da. Dagoeneko proiektuak gotzaindegiaren oniritzia du, eta Diputazioaren baimenaren zain daude lanei ekiteko.

Lanak hiru fasetan egingo dira. Lehenengo fasean, instalazioari dagozkionak: berogailua jarri, argiteria eta megafonia egokitu eta barruko paretak konpondu. Fase honetako konponketek hiruzpalau hilabete iraungo dute, eta bitartean, parrokia itxita egongo da.

Bigarren fasean, erretaula nagusia eta alboetako lau txikiagoak hartuko dira kontuan. Erretaula guztietako irudiak egoera onean daude, eta garbitu baino ez dira egingo, tokitik mugitu gabe. Orain 30 urte berriztu zen erretaula nagusia, eta hautsa besterik ez dute Carmonaren irudiek. Egiturak tratamendu sakonagoa beharko du, xilofagoek janda baitago. Lanok bizpahiru hilabete iraungo dute; hala ere, parrokia irekita egongo da bitartean.



Santa Marinako konponketak hiru fasetan egingo dira; eliza barrutik eta kanpotik berriztuko da.

JESUS LASKURAIN

Lanen hirugarren fasean, elizaren kanpoko paretak berriztuko dira. Eta guztia amaitu ostean, organoa. Lanek, guztira, bi hilabete iraungo dute, eta eliza zabalik egongo da.

Hobetze eta berritze lanok eliza behar bezala jartzeko egingo dira, betiere, "elizan dauden beharrak aztertu ondoren", Xabier Azkoitia apaizaren arabera.

Aurrekontua 250 milioi ingurukoa da (Diputazioa %50aren kargu egingo da), eta Xabier Azkoitiaren esanetan, irail aldera hasiko dira. Proiektua Aste Santuan amaitu zuten, eta gotzaindegiak aztertu ostean Diputazioari bidali dute. Oraindik Foru Aldundiaren oniritzirik jaso ez duten arren, Azkoitiak arazorik ez dela izango uste du.


Bergarako ermitak "Ermitas de Gipuzkoa" liburuan jaso ditu Jose Miguel de Barandiaran fundazioak

Jose Miguel de Barandiaran fundazioak, "Ermitas de Gipuzkoa" izeneko liburua argitaratu berri du. Egileak, Antxon Agirre Sorondo eta Koldo Lizarralde Elberdin dira. Antxon Agirre ezaguna dugu gure artean;

izan ere, bera da BERRIGARAKO erroten inguruko saileko egilea.

"Ermitas de Gipuzkoa" liburuak Gipuzkoako 552 basiliza jasotzen ditu. Hauetatik 133 Debagoienen daude, eta 38 Bergaran.

Bergarako ermitei dagozkienek, 11 desagertuta daude, kultuarekin hogeik darrate, bestelako erabilera bosti ematen zaie, bat hondatuta dago eta bi abandonatuta. Liburuan basilizen ezaugarriak ere jasotzen dira.



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA



Maria Urzelai barraskilo jantzita entsaiuko une btean.

Maria Urzelai bergararra "Badum Mundua" antzezlanean

Maria Urzelai bergararrak, Hortz-muga antzerki taldearekin batera, "Badum Mundua" lana estreinatuko du datorren eguaztenean, hilak 12, 20:00etan, Donostiako Txofre palazan.

Mariak, Basauriko Antzerki Eskolan dihardu ikasten. Aste Santuan, eskolako iragarki taulan Hortzmugak, Bilboko taldeak, obra berri baterako jendea behar zuela irakurri zuen. Probetara aurkeztu, eta jende askoren artean "Badum Mundua" Hortzmugaren lan berriari parte hartzeko aukeratu zuten.

Hortzmuga kale antzerkiko taldea da. Pentekoste jaietan Bergaran ikusteko aukera izan genuen. Orain arte, Pentekostetan egin bezalako lanetara mugatu diren arren, erronka berri bati aurre egin nahi izan diote taldekideek, eta asmo horretatik sortu da haurrentako musikal hau. Zuzendari lanetan, Ander Lipus "Fábrica de teatro imaginario" konpainiako zuzendaria ari da, eta konposizioa eta zuzendaritza musikalaz Aitor Agiriano arduratu da.

"Badum Mundua"k, Toto eta Dotaren istorioa kontatzen du. Totok txakur baten askatasuna izan nahi du. Dotak, berriz, dotore eta ederra izan gura du. Ondorioz, euren ametsak egia bihurtuko diren Badum izeneko mundu magikora joango dira. Bidaian, barraskilo jauna, astronauta adoretsua, eta beste pertsonaia batzuk topatuko dituzte.

Maria Urzelaik barraskiloarena egingen du, eta antzezteaz gain, abestu ere egingen du. Berak esandakoaren arabera, oso pozik dago lan honetan parte hartzeaz, eta azaldu duenez bere "pizuzko lehenengo lana da", eta "urduri samar" ere badago datorren eguaztenean Donostiako Txofre plazan egingo duten estreinaldirako. Bestalde, Zarauzko Kalerki eta Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdian ere hartuko dute parte. Horrez gain, Hortzmugaren lan berri hau kale antzerki gisa azalduko duten arren, urria aldera aretoetara eramateko asmoa dutela azaldu du Maria Urzelai.

salduenak ekaina

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. ABERTZALEAK ETA EZKERTIARRAK
Julen Zabalo. Elkarlanean
2. GAIZKILEEN FAKTORIA
Alberto Barandiaran. Egunkaria
3. NAFARROA: IRAGANA ETA GEROA
Iñaki Petxarroman. Txalaparta
4. BEGIAK ITXI ETA KITTO
Xabier Etxaniz Rojo. Elkarlanean
5. ONAN
Aitor Arana. Txalaparta

ERDARAZ

1. LA CARTA ESFERICA
Arturo Perez-Reverte. Alfaguara
2. LA IGNORANCIA
Milan Kundera. Tusquets
3. ARANMANOTH
Ana María Matute. Espasa
4. LA VOLUNTARIA CONQUISTA
Tomas Urzainki. Arabera
5. LA FIESTA DEL CHIVO
Mario Vargas Llosa. Alfaguara
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. LA BOMBA DEL VERANO
Caribe 2000
2. OSKORRI
Ura
3. ETSIAIK
Zuzenean'00
4. PORSUPUESTON
Kaos Etiliko
5. GLORIA ESTEFAN
Alma Caribeña
6. NOCHE DE CUATRO LUNAS
Julio Iglesias
7. LABRIT
Paradisua
Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Eskola. 2. Asiako estatua. Berrogeita hamar. 3. Beltz. Barazki-mota. 4. Neona. Noka, du. Zintzo. 5. Zoritxar. Neurri apaleko. 6. Azkenekoa. Prezipitazio-mota. Tona. 7. Iseka. Bokala. Kontsonante errepikatua. 8. Interjekzioa. Adin batekoa. 9. ... danez, dirudienez. Oinarrizko edaria. Alderantziz, egile atzizkia. 10. Gorotza. Ogi egilea.

Goitik behera

1. Keinuak. 2. Karrika. Letoniako hiriburua. 3. Sexu eme. Harria. Iparretarrak. 4. Oinetako-mota. Lehenengoa. 5. Titanioa. Gau egin. 6. Hitzez adierazi. Röntgen. Gizon izena. 7. Nazioarteko garraioetan. Pluralean, garraio-mota. 8. Garbigarria. Bostehun. Bat. 9. Bokala. ... egina, total egina. Zeukan. 10. Edo. Ospea.

Soluzioa

10. Ala. Itzala.
9. E. Ink. Zuen.
7. TIR. Trenak. 8. Xaboi. D. I.
5. TI. Ilundu. 6. Esan. R. Iro.
3. Alu. Mea. Ik. 4. Sandalia. A.
1. Imintziok. 2. Kalea. Riga.

Goitik behera

9. Agi. Ura. el. 10. Kaka. Okina.
Iraín. E. Zz. 8. Oii. Adindua.
5. Tamal. Tiki. 6. Elurra. T. 7.
3. Ilun. Arbia. 4. Ne. Din. On.
1. Likastexea. 2. Malaisia. L.

Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Soraluzetik itsasorainoko bidean, zenbat herritatik pasatzen da Deba ibaia?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Noiz helduko da Bergarara euskal preso politikoen aldeko martxa nazionala?
A- Uztailaren 11n
B- Uztailaren 12an
C- Uztailaren 13an
- Mendate hauetatik zein ez zuten igo Quebrantahuesos txirindulari proban?
A- Portalet
B- Tourmalet
C- Marie Blaque
- Zein pertsonaia antzetzten du Maria Urzelaik "Badum Munda" obran?
A- Postaria
B- Barraskiloa
C- Detektibea



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Jesusa Mujikarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Jesusari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Santo Kristo Hilzorikoa** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonia:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

San Miguel
garagardoa, 25cl.x6 packa
263 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Inma Beristain 21 urtian bizi da Antzuolan, baiña azkoittiarra da. 45 urte dauzka, ezkontuta dago eta hiru seme-ren ama da. Azkenengo lau urtietan Bergarako piszinetan lan egiten dau sorosle moduan.

Zeïnek erakutsi zotzun igarixan?

15 urte neuzkala, bizkarrian arazuak neuzkala-eta, Donostiara juaten hasi nintzan.

Jende asko salbatu dozu?

Ez, oraingoz iñor ez. Eskerrak!!!

Piszinia, itsasua ala errekoa?

Piszinia, hemen ohittu naiz-eta.

Zer da zure lanian gehixen gustatzen jatzuna?

Jendiarekin daukaten hartu-emona.

Eta gutxien?

Jendiari atentziñua deittu biharra, eta gaiñera, erantzun txarrak jasotzia.

Zeïni egingo zontzake "aguadilla" bat gustora?

Gaizki erantzuten dosten horrei mutikuoï.

Eta "boca a boca" bat?

Iñori ez egittia nahixago.

Hondartzako sorosliak asko ligatzen ei dabe. Piszinetakuok?

Nik ez daukat denporarik be horretarako.

Oporretarako hondartza ala mendixa?

Bixak.

Aurtengo udarako egin dozu planik?

Bai, Galiziara juateko asmua daukagu, mendira eta hondartzara.

Eguzkixa hartzeko, bikinixa ala bañujantzixa?

Neuk nahixago dot bikinixa.

Piszinetan eguzkixa top-lessian hartzekuan aldekoa zara?

Bai, nik uste dot jendiak aukeria eduki bihar dabela nahi daben bezala egoteko.

Inma Beristain

Egunian zenbat buelta emoten jatzu pisziniari?

Behin baiño gehixagotan hasi izan naiz kontatzen, baiña eziñezkua da.

Udan zertara etortzen da jendia piszinetara?

Igarixan egittera be etortzen da jendia, baiña umiak esaterako jolasera etortzen dira, eta beste batzuk eguzkixa hartzera.

Zein da eguneko ordurik lasaixena?

Eguardiko ordubixak aldia.

Eta jendetsuena?

Arratsaldeko laurak bostak bittartia.

Antzuolan piszinak noizko?

Ez dakit. Beti entzuten gabitz egin bihar dittuela, baiña...

Nahikua diru edukiz gero, zer?

Bidaia eder bat egingo neuke.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Igarixan egittia, irakurtzia eta mendira juatia.

Gustoko liburu bat?


"La hija de la fortuna".

Zure bertute bat eta defektu bat?

Hori bestiei galdetu bihar.

Amets bat?

Bakian eta lasai-lasai bizi ahal izatia; ez daukat beste aparteko ametsik.



URRATS
TABERNA
KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN
Ibargarai 4
943 76 52 92

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

ENREDOS

Leapaindegi berrian Marian eta Koro zain gauzkazu.
Zatoz, gure estiloa gustatuko zaizu.

Urte askotako esperientzia
Deitu eta gorde lekua!

Juan Gisasola 6, behea. EIBAR
943 20 64 42

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU
Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95



Emakume koadrila Arantzazun

Argazkian agertzen den emakume koadrilak ohitura zeukan orain dela urte batzuk urtean behin lagunarteko irteeraren bat egiteko. Autobusa alokatu eta elkarrekin joaten ziren egun pasa, Loiolara, Arantzazura, Arratera eta beste hainbat lekutara. Euskal Herriko toki diferentek ezagutu eta elkarrekin primeran pasatzen zuten, bazkari ederra eginez gainera. Goiko argazkia orain dela 25 urte Arantzazun aterata dago. Argazkia ikusita ez dago zalantzarik beraiantzat egun handia izaten zela eta hor ditugu guztiak kamara aurrean, dotore-dotore jantzita. Ziur asko oroitzapen onak ekarriko

dizkie erretratu ikusteak. Honako hauek dira argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Benedikta Biteri, Kristina Iburguren, Bittori Arregi, Dorita Zabaleta, Celestina Larrañaga, Benita Larrañaga, Kristina Romaratezabala, Edurne Azkargorta, Benita Garitano eta Karmen Iburguren.

Makurtuta: Ali Iburguren, Kontxita Garitano, Vicenta Ibabe, Clementa Arregi, Euxebia Errasti eta Dolores Zumelaga.

Argazkia: Kristina Iburguren

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



M A Y A

Oinetakoak Arropak Zilarra

Helbide berria:

Irala kalea z/g

Udako ordutegia:

10:00-13:00 eta 17:00-21:00

Zapatu arratsalde zabalik

Beherapenak

%

30

eraino

GRUPO **RK A UZ**


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 


Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariak**en (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketan).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

(gutxieneko erosketan 80.000 pta.takoa)